


# AITA SAINA

293. zenb.

1975.eko martxoaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## EUROPA BA(NA)TUA 1975 EEE ez da EHE



Europaren gurasoak: Schuman, de Gasperi eta Adenauer  
Haien asmo guztiak ez dira oraino aurrera eramán

«Europaren Urtea» izendatu zuen aspaldi batetan Kissinger jaunak joana zaigun 1974. Baina urte eskasa izan da Europaren autonomiaren eta batasunaren bidean, Europako Batzordearen\* buru den Ortolí jaunak esan duenez. Otsailaren\* 19an, ihazkoari begiratzuz eta aurten egitekoa aurkeztuz egin zuen hitzaldian, honela mintzatu zen Ortolí: «Bere independentzia eta batasuna lortzeko, urrats\* handiagoren premian dago Europa. Funtsezko\* arazoetan atzeraka ari gara. Gure independentziak atzera jo du; gure asmoak kaxkartu egin dira; geure instituzionalizazio bidean ia\* huts egin dugu».

Eta Europaren ekonomiazko, politikazko, gizartezko eta instituziozko batasunari aurrera eragiteko programa agertu du Europako Bederatzien ordezkariak. Horretarako batez ere, eta berehalako arazoak konpontzeko, Europako Ekonomi Elkarteko bederatzi Gobernuen buruak bilduko dira aurten.

Aurten bilduko dira, halaber,\* Europako Apezpiku Konferentzien buru eta ordezkariak. Urte Saindua Erroman ospatzen denez, beren

bilera nagusi hau Erroman egingo dute, Europako «Elizen» elkartegatzea eta batasuna Aita Sainduaren inguruan finkatu nahian edo.

### Hogei urte geroago

Aurten betetzen dira hogei urte, 1955.ean Europako Ekonomi Elkartea (EEE) sortzea erabaki zenetik. Urte hartan Messinán bildu ziren ministroek, Europaren batasuna aurren aurrenik ekonomí mailan egin behar zela erabaki zuten, eta ez politik mailan. Politikazko batasuna gerorako utzi zuten. Izatez, aukerapen eta erabaki haren ondorioak ez ditu oraindik Europa «batua» gaititu.\*

Europaren une honetako egoerak, orduan agertu zén eta argitu gabe utzi zén zalantza bera nabarmentzen du: hau da, elkartasuna

azken horrialdera

1975, otsailak 13

Anaitasunaren Zuzendaria  
Pelota, 4-1.º - Bilbao-5  
Posta kaxa: 495

Zuzendari jauna. Eskutitz hau zure Anaitasunaren argitaratzeko eskatuaz bidaltzen dizut.

Anaitasunaren 290. zenbakian, «BI JOKABIDE DESBERDIN» tituluarekin J. L. Lizundiaren lantxo bat azaltzen da, ni aitatuaz.

Lehenbizi, Euskal-Herriaren ordezkari izateko titulurik ez dut. Gainera, eta Lizundia nerekin ados etorriko da, ordezkari haur hauteskunde herritar baten bidez ematea, Demokraziaren A B C dela; edo ta nik behin ere konprenitu ez dedan, dohain edo karisma batekin, inork bere burua ordezkari egiten ez badu.

Bigarren, Lizundia jaunak argitaratutako lantxo honetaz gainera, «Diario Vascon» urtarrilaren 12-an Bruselasetik etorritako laburpena irakurri balu, jakingo zuan, Ramon de Sotak, Europa-elkarteko gizonen artean, gure Herriaren arazoa, Sotarena eta nerea alegia, agertu zuala; gainera hitz oso argiekin, bai nik onhartzeko, eta uste dut, bai Lizundia jaunak ere.

Onek esan nahi du, nik «JUNTA DEMOKRATIKATAZ» bakarrik hitz egin banun, Sota jaunak Euskal-Herriaren nortasuna gogor defenditu zualako izan zela, eta bakoitzak epe berezia gendukalako, gai berdinetan ez erortzeko.

Hirugarren, eta azkenik, onek ez du esan nahi Euskal-Herriaren, gure herriaren, nortasun politikoak, sozialak eta kulturalak, arazo guzti hauek kezkatzen ez nautela; bai, eta gainera Lizundia jaunari ukatzen diot, erderaz esaten den «Patente de corso» kontrakoa aurpegira botatzeko.

Orain dela hilabete batzuek, Madrileko ikastetxe nagusi batean emandako hitzaldian, arazo hau argi eta garbi aipatu nuen, han bildu ziren entzuleak Euskal-Herriaren eskubideak onhartu zituzten. Gainera, zorionez, Euskal-Herriko eskubide hauek Peninsulako sektore sozial zabalak onhartzeko lana egiten ari den talde batean nago; eta ez bakarrik onhartu, baizik eta kontura arazteko, Herri arazo onen soluzioa, Estaduaren sorkunde demokratikoan, faktore garrantzizkoa eta ahaztu ezin dezaketen dela.

Biotzez agurtzen zaitu:

**Enrique Múgica Herzog**

## OHARRA

### ANAITASUNAREN abonatuak

Bulegoko lana errazteko eta irakurleak hobeto zerbitzatzeko, aurrerantzean abonamendu guztiak urtearen haseran ordainduko dira.

Beraz, 1974.ekoa urrian ordaindu duzuenoi, orain berriro joango zaizue aurtengo errenbolsua. Ezkerrik asko aurrez!



Aurrera, irakurle eta ikasle!

Hemen gaituzue berriz ere EUSKALDUNTZEN metodoarekin, guztioi aukera emanez, geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezazuen.

Liburu hauetan arras ongi azaltzen dira hitzak eta esaldiak. Ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu, baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, hiru liburuotan, irudiak, eskemak eta esaera zaharrak agertzen dira.

Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontutan hartu dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba dituzte liburuok elkar hizketa eta istorioak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko jarri ditugu istorio eta elkar hizketok.

Geure hizkuntza ikasteko, hemen duzue prest, hiru mailatan, EUSKALDUNTZEN metodoa. Eskatuzue helbide honetara: **Ribera, 6. Bilbao-5**

# ANAITASUNA

BIZKAIA

## HAMABOSTEROKOA

### JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Batzarre Nazionala.  
Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1).

### ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai.

### Urteko abonamendua:

Bertorako	300	pezeta
Latin Amerikarako	320	"
Europa eta Ipar Amerikarako	330	"

Ale bakoitza: 15 pezeta.

### INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35 - Bilbao-10

# "IBERIA EXPRESS"

## Portugal berriro ere

1974.eko apirilaren 25a: zurrumurruak zabaldu dira Portugaletik. «Dinamarkako ustelaren kiratsa», aspalditik Portugaletik hedatua,\* egia zen. Berrogei urtetako agintarismoak lur jo du, Harmadaren\* eskuetan. Erori\* egin da Caetanoren Gobernua, Salazarrek eraikitako erregimena. «Krabelin iraultzaren» egunsentia\* argitu da Lisboako karraketan.\* «Biba askatasuna!».

Kasik urtebete joan da, eta politik mugimendua berriro ere bizkortuko da Portugalen aurtengo apirilean. Hauteskundeak\* datoz, eta Harmadak eta alderdi politikoez demokrazi eskaintza bat egin nahi omen diote herriari. Hori, bai: bakoitzak nahi duen demokrazi jatoritasunaren arabera.\* Harmadak bere boza jaso du, agertu du esateko zuena, ekonomi birmoldaketa bat eskainiz eta elezio aurretik baldintza batzu ezarriz. Hortxe, bi puntu horietanxe baitago eztabaida politikoaren gakoa: Zer ekonomi moldaketa? Zernolako eta zertarako hauteskundeak?

Alderdi guztiak ez dira ados, erabaki behar diren arazo hauetan: Nolako izanen da etorkizunean Portugaleko ekonomiaren egitura? Nola hartuko du parte Harmadak Estatu politikan? Eta zer toki emango die Harmadak alderdi politikoei?

### «Premiazko Ekonomi Plangintza»

Otsailaren\* 20an eman da ezagutzera, Harmadak moldatu duen «Premiazko Ekonomi Plangintza». Portugal oso gaixo da ekonomiaren aldetik. Mundu osoa krisialdi larrian aurkitu den unean bertan, galdu egin ditu Portugalek bere kolonia aberatsenak. Odol husturik aurkitzen da Estatu eta nazioa. Europak ere ez du orain sobera\* lagundu nahi: herbesteraturiko langileria etxera itzuli beharrean aurkitzen da. Plangintza baten premiatan dago Portugal.

Plangintza honek «Apirilaren 25aren» jarraipena izan nahi du: demokrazia bat egin, baina ekonomiaren gidaritza aginte politikoaren eskuetan dela. Ez da jabetasun pribatua ukatzen, baina jabetasun horren instituzionaketa monopolio gabeko moldaketa baten barnean ulertu behar da. «Harmadaren Mugimenduak soziaztailea izan behar du». Ekintza honek bi fronti erasoko\* die gogor: estrategia antimonopolista honen aurka datozen talde ekonomikoei eta langilariaren barnean anarki bidetik jo nahi dutenei.

Plangintzaren helburuak holatsu labur litezke. Gizarteko kontsumoari emango zaio lehentasuna, eta ez bakoitzarenari. Izpiritu honekin doala, helburu jakin batzu izendatu zaizkio plangintzari: lantokien segurtapena inbertsio berrien bidez, inflazioa geldieraztea, irabazien banakuntza zuzenagoa behartsuen faboretan bereziki.

Estatuak eskuharmen bizkor bat hartuko du ekonomiako sail nagusietan. Meagintzan,\* siderurgian, harmagintzan eta elektrik etxeetan, 51 % akzio Estatuaren eskuetara pasatuko dira. Laborantzan, mugatu egingo da bakoitzak labora dezakeen lurra: erregadiodunetan 50 hektarea izanen dira gehienik. Arrantzan,\* Estatuak berak sortuko ditu entresa berriak. Itsas konpainietan Estatuak hartuko du akzioen gehiengoa.\* Etxegintzan ere, Estatuak sortuko ditu, lurraren espekulazioa ito nahirik, premiazkoak diren entresa publikoak.

Hauk\* dira luzarora bultzatu nahi diren egitekoak, orain dauden berehalako betekizunak ahantzi gabe. Ezker muturre-

koek ez dute batere ausarta\* aurkitu plangintza hau; eskuinekoek, berriz, estatukrazia iraultzaile baten maliobratzat hartu dute. Erdiak eta ezker demokratikoak begi onez ikusi dute, ordea.

### Estatu berriaren instituziogintza

Plangintzaren azpitik politik ideologia zenbait dabil, noski. Portugaleko Harmada, ideologiaren bat hautatuz ari da politika egiten. Egia da, Harmadaren profesiotasun hutsa ere gorde nahi duela Harmadaren hegal batek; baina Indar Harmatuen Mugimenduaren batzorde koordinatzailea geroz eta bide politikoagoa hartuz doa. Lehenik, ekonomi politika bat hautatu du; eta, hori guztiori alferrikakoa eta ustela gerta ez dadin, orain politika hutsaren instituzioak bereganatu gura litzuke.

Hauxe da, bada, bigarren puntua: Harmadaren egiteko politikoari instituzio moldaketa bat eskaintzea. Portugalek behin-behineko\* Gobernu du orain; Parlamenturik ez du; harmagizonak dira benetako gobernari. Eta, bien bitartean, legez onhartuta dauden bost alderdi politikoak geroari beha\* daude. Orainaldiaren eta etorkizunaren artean, guztion begirale eta zuzentzaile bezala Harmada dago.



Vasco Gonçalves

Indar Harmatuen Mugimenduak (IHMk) hiru instituzio modu eratu ditu orain arte: a) Salbade Nazionalerako Batzarrea, b) Batzorde\* Koordinatzailea, c) Harmagizonen Kontseilu Nagusia (edo 20en Kontseilua). Guztion kontsultagailu bezala, IHMren Kontseilu Osoa dago, «200en Kontseilua» deitu dutena, halegia.\* Nolabait esateko, Gobernuaren parean Gobernuaren gaineko beste managailu\* bat daduka Portugalek orain. Alde batetik, nazioaren edo Estatuaren Konstituzioa egiteke\* dago, jaio gabe. Baina, bestetik, herriaren ordezkari hautatuek deus\* erabaki aurretik ere, Portugalen ba daude dagoneko\* zenbait konstituziogai deliberaturik. Edo horixe esan da behintzat.

Apirilean izan behar dute hauteskundeek, Parlamentu Konstituziogilea aukeratzeko, hain zuzen. Hala ere, IHMko Kontseilu Osoak onhartu du alde aurretik, zernolako mugen barruan lan egin beharko duen Parlamentu horrek: «Portuges demokraziaren bultzatzaile eta babesmaila» Harmada izango da, esan du Vasco Gonçalves jaunak. Eta, egiteko hau betetzeko, eta ekonomi plangintza ere bete dadin, instituzionatu egin beharko da Harmadaren partaidetasun hori.

Harmadaren politik instituziogintzak, ostera, ba ditu bere gorabeheratxoak. Politik alderdiak ere hor daude; eta ba dirudi, hau direla politika demokratiko baten tresna jatorrak. Nola ezkon elkarrekin alderdi hauen lana eta IHMk ezarri nahiko luken gerizpea?

Bistan dago, aipatutako IHMren hiru gobernagailu haik\* instituzioen artean sartzeak, Parlamentu Konstituziogileari konstituziogai bat ezartzen diola. Beronek ez ditu libre izanen eskuak, inola ere. Eta hau ere aitortu du IHMk. Harmadaren partaidetasun hau bi epetan beteko litzateke, diotenez.

Lehen epea, urte honen azkenerrainokoa, Parlamentu Konstituziogilearen garaikoa izanen da, hau da, abendu aldean-edo Parlamentu Legegilea aukeratu arte. Hilabete hauetan, Ministruen Kontseiluak agintea ongi mugaturik izanen luke, eta benetako aginpidea Salbamide Nazionalerako Batzarrean eta Harmagizonen Kontseilu Nagusian egongo da. Holako zerbait da, bederen,\* usnatzen\* dena.

Parlamentu Legegilea hautatzean, «demokrazia babestu» bat hasiko litzateke, 1978.aren lehen hilabeteetaraino. 1976-1977.etan, beraz, Harmadaren betekizuna, «Apirilaren 25eko» izpiritu eta «programa» zaintzea izango da. Programa horren barnean, aurkeztu dugun Plangintza Ekonomikoa betetzea da eginkizunik nagusia. Agintera igan litekeen alderdiak ez du hura\* desegiteko eskubiderik. Horrelakorik gerta ez dadin, beharbada, «20en Kontseilua» nahiz «Kontseilu Osoa» Gobernuaren kontsultagailu bilakatuko\* da.

Hitz batez esanik, azken hamar hilabeteetako politik ekin-tzen fruituak salbatu nahi dira, eta kalegizon eta harmagizonen artean egindako plangintzak aterpetu. Prest daude militarrek agintea uzteko, baina ez fruitu haik ongi segurtatu aurretik.

Alderdi politikoek ez dituzte guztiek berdinki ikusten Harmadaren proposamenak; ondoko asteetan argituko dira asmo hauen xehetasunak. Bost alderdietatik bi (Alderdi Komunista eta Portuges Mugimendu Demokratikoa, hulegia) oso osorik daude ados Harmadaren proposamenarekin; baina Alderdi Sozialistak eta Herritar Alderdi Demokratikoak ez dute berehala onhartuko. Boskarrena, berriz (Zentro Demokratiko Soziala), zain zain dago. Beste gauza askotan bezala, geroak erakutsiko du nora doan instituziogintza hau. (Joanes Goia)

## Otsailaren Hamabia

Urtebete pasatu da, Arias Navarro Gobernuko lehendakari jaunak «irekitasun» asmoak azaldu zituela.

Urtebete honetan, izan da gertakariarik\* aski\* Espainiako politikan, aro\* bare eta epela ez dela izan esateko.

Erregimenaren historian ez da izan beharbada bolada\* be-reagorik eta krisi sakonagorik. Aztertzen ari garen urtebetean izan diren burrukak, eztabaidak eta istiluak,\* ez dira izan, besteetan batez beste gertatu izan direnen tankera\* berekoa. Egungo\* egoerak bai baititu ezagugarri berezi batzu:\*

a) Franco jenerala urtetan aurrera doa: eta bistan dago, lehentxoago edo geroxeago, pertsona bakar baten eskutan\* egon den boterea nolabait banatu beharra izanen dela. Udan pasatu zuen gaixoardak, are\* gehiago nabarmendu du premia hau.

Berez legean zehazturik dago botere txanda nola alda; baina errealitatea ez dago legearen letra bezain argi. Legeak berak ere ba ditu hutsuneak, ez baitago printzearen ordezkorik izendatuta; baina, hori alde batera utzita ere, indar jokorik ez da falta, legea bete ez dadin (erregimen barneko indarrez ari gara, noski).

b) Gerla ondorenetik gaur arte Espainiako politikak izan dituen muga hestuak, ekonomiaren mekanismoan eragin\* handia duten sozial indar batzuren\*etorkizun asmoentzat lokarri bihurtu dira.

Gobernuak hau konpreniturik, politik elkarteen irtenbidea proposatu du; baina lehendakaria bera ere pozik utzi ez duen soluziobide honek nekez konpon ditzake gauzak.

Ba daude bai oraindik, hori ere gehiegikeria izugarri bat dela diotenak, eta orain hogeita hamabost urteko garaira itzuli nahi dutenak; baina «gorri» ez den askorentzat ere, soluziobide hori ez da behar litzatekeen urrats\* ausarta.\* Batez ere Portugal hurbilegi dagoelako, eta Europa oraino urrunegi.

c) Langile burrukak inoiz baino istilu handiagoak ekarri ditu. Sindikatu ofizialaren bideak baino sistema egokiagorik behar litzatekeela azaldu dute langileek; eta ugazaba\* asko ere horretan ados dagoela dirudi. 1001 prozesuaren berrikustean gartziguak biguntzea, ez ote da nolabait horixe ezagutzea?



Arias Navarro

Ekonomi krisi batetan gaude. Eta, horrelakotan gertatu ohi den bezala, ondorioak langileek bereziki sufritzen dituztenez, burruka ere indartzea normala da; baina, gainera, oraingoan greba askok politikazko kutsu nabarmen bat izan du.

Langile soilenak\* bakarrik izaten ziren grebak orain arte; orain, ordea, dendariak, funtzionariak, teatroko jendea aztoratuta\* dabilta.

d) Unibertsitatea berriro ere istilutan dabil, eta ez nola nabiko istilutan ere. Bi Unibertsitate hitxita\* edukitzea ez da txantxetakoa.

Hauxe da aurtengo Otsailaren Hamabian azaldu den panorama. Urtebeteko balantzea egiterakoan, zerbait azaltzen da garbi: ihaz ikusten ziren premiei erantzun bat bilatzen, ez dakigu zerbait aurreratu den ala ez; baina premia horien larritasuna gero eta gardenago\* ikusten da. (Andoni Sagarna)

dezake, daike  
dezaten, daien  
die, deutse  
dio, deutso  
diote, deutsoe

ditzake, daikez  
ditzakete, daikeez  
lioke, leuski  
zaio, jako  
zaizkio, jakoz



# MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikerriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Urbitarte, 15 BILBO-9

# Zer egin zaborreriarekin?

Satsuduraren\* arazoa aipatzean, sarri askotan lantegiei egozten\* diegu erru\* guztia. Baina guk ere ba dugu erruaren zati bat, eguneroko zereginetan agertzen dugun burugabekeriaren kausaz. Mendira txango\* egitera goazelarik, axolagabeki uzten ditugu bertan janari hondakinak eta bestelako zaborreriak.\* Horrela, ez da harritzekoa, edozein mendi bazterretan gure zibilizazioaren haztarrenak\* aurkitzea: latontziak,\* paperak, plastikozko zerak eta beste.

Hondartzetara hainbat eta hainbat tonelada zaborreria heltzen da urtero. Itsas korranteek edonora eramaten dute zaborreria. Lapurdiko itsas hegira,\* adibidez, Espainiako iparraldeko herrietan jaurtikitako zikinkeria asko heltzen da. Hori bai dela inoren bekatua ordaindu beharra!

Urtero, zabor\* kopurua\* 5 %etan gehitzen da guti goitibeheiti.\* Ordua da, beraz, problema honen kontzientzia hartzeko; bestela, egunen batez, geure zaborrek ito egingen gaituzte eta.

## GARAIK ALDATUZ DOAZ

Duela berrogei ta hamar urte (eta oraintsuago ere) etxeetan ez zen ia zaborrik egiten ez jaurtikitzen. Papera, edo gauzak azaleztatzeko\* gordetzen zen, edo sua izekitzeko\* erabiltzen. Janari hondakinak, txerri, txakur, oilo edo antzeko animalientzat gordetzen ziren. Botilak ere gorde egiten ziren, gero sagardoa, tomatea eta horrelakoak edukitzeko. Jantziek edozein bat\* urtetako bizitza zuten, ez baitzen modaren aldakuntza lasterregirik gertatzen. Plastikoa ez zen oraindik ezagutzen. Eta abar. Ezertaroko ez ziren azken hondakinak, erre egiten ziren sutegian. Honela, ez zen ia ezer ere alferrik galtzen. Bestalde, geratzen zen zarama\* apurra erraustu egiten zenez gero, ez zen zaramategi arazorik sortzen.

Bestelakoa da, gaur egun egiten duguna. Etxean ez dugu animaliarik; beraz, ezin ditzakegu janari hondakinak probetxa. Botilak, ontziak eta estalgarriak geroago eta gehiago plastikozkoak dira; eta, gainera, behin erabiliz gero, botatzekoak. Jantziak edozein aitzakiz baztertzen ditugu. Gasak eta elektrizitateak zokoratu egin dituzte lehengo ikatz sutegiak. Hori dela eta, ez ditugu zaramak erretzen.

«Erabil eta bota, erabil eta bota». Slogan hau, pentsamolde eta jokabide hau Ipar Amerikatik etorri zaigu. Ekonomiari bultzada emateko asmatu izan zen, eta, egia esan, neurri batez behintzat, lortua du bere helburua. Baina, haren erruz, kontsumismo itsu batetan sarturik aurkitzen gara egun.\* Eta kontsumismo hau gure aurka altxatzen ari da. Satsudur problema gogorra dugu. Ez dakigu zer egin zaramekin. Lehen ekaiak,\* bestalde, eskasten ari dira. Ezin gaitzeko honela bizi. Muga bat jarri behar diogu satsudurari. Zaramen arazoa konpondu egin behar dugu. Muga bat ezarri behar diogu lehen ekaien alferrik galtzeari.

## ZENBAT ETA NOLAKO ZABORRERIA EGITEN DUGUN

Europako lurraldeetan, batez\* beste, pertsona bakoitzak 250 kg zaborreria inguru egiten du urtean. Ipar Amerikarrek bi bider gehiago egiten dute: 500 kg inguru. Frantzia, adibidez, urtean 11 milioi tonelada zarama ateratzen dira, orotara,\* etxeetatik.

Ikus dezagun zerezkoak diren zaborrak. Lehenik eta behin, zaborren konposizioa aspaldion aldatu egin dela esan behar dugu. Hogeitahamar urte dela, landare hondakinez eta materia ustelkorrez osaturik zeuden gehienbat. Gaur egun, horrelako zaborrak geroago eta gutiago agertzen dira. Haien tokia paperak hartu du, plastikozkoak, metalak eta beirak.\*

Frantziako zaborren kasuan, 24 %a ekai organikoa da,

29,6 %a papera, 24,3 %a errautsa,\* 6 %a plastikoa, 4,2 %a metala, 3,9 %a beira, eta 8 %a osterantzeko\* ekaiak. (Datu hauetako portzentaiak, pisua kontutan harturik emanak dira.) Beraz, Frantzia urtero 3.256.000 tonelada paper, 460.000 tonelada metal, 429.000 tonelada beira, eta 660.000 tonelada plastiko jaurtikitzen dira zarama artean. Ikusten denez, zernahi ondasun dago zabor artean ezkutaturik.\*

## ZER EGITEN IZAN DEN ZARAMEKIN

Etxe isolatuetan\* eta herri tiki askotan, ez dago zaramak biltzeko zerbitzu berezirik: nor bere gisatara\* desager erazten ditu zaramak. Hirietan, ostera, antolatutako egoten dago zaborrak biltzeko zerbitzua. Egutero, zaramariak biltzen dituzte zaborrak, eta zaramategietara eramaten kamioiz.

Lehen, kasu batzutan,\* besterik gabe uzten ziren zaborrak zaramategietan. Honela, zaramategiok arratoien erresuma\* bilakatzen\* ziren, eta —txarrago dena— eritasun\* iturri izateko bidean jartzen. Sistema horrek, inguruak kutsatzeko\* arriskua zegoen; eta horregatik egun ez dago ia inon ere horrela funtzionatzen duen zaramategirik.

Beste kasu batzutan, estratifikatu egiten ziren zaborrak, zabor geruza\* baten ganean lur geruza bat ihaurriz;\* gero beste geruza geruza bat, eta horren ganean lurrezkoa; eta honela behin eta berriro. Honetara,\* ez zegoen kutsatze arrisku handirik. Gainera, zaborrek sakonuneak ordokituz,\* kirol zelaiak eta antzekoak egin izan dira leku horietan. Eibarren, adibidez, honela egin zen Ipuruako futbol zelaia; New Yorken honela egin izan da bertako aireporturik famatuena, Kennedy Airport delakoa.

Beste kasu batzutan, erre egiten izan dira zaborrak zaramategian bertan, baina ezelako\* erregailu berezirik gabe. Jadanik\* ez da metodo hau ia inon ere erabiltzen, inguruan egurats\* satsadura handia sortzen baitu. Hala ere, Bilbon Artxandako zaramategian metodo hau erabiltzen da, eta ondorioak xori-herritarrek eta bilbotarrek jasaten\* dituzte eta pairatzen.\*

Dena den, aipatu\* metodoekin ez dira probetatzen zarametan dauden ondasunak. Eta, gaur egun, heldu da horietaz ere baliatzeko ordua.

## ZARAMEN ONDASUNAK ERREKUPERATU BEHAR DITUGU

Papera, metalak, beirakiak,\* plastikozko zerak eta abar fabrikatzeko, lehen ekai batzuz\* ohostu\* behar dizkiogu naturari. Baina kontutan hartu behar dugu, lehen ekai horik\* ez direla amaigabeak. Zaborretan dauden paper, metal, plastiko eta beste probetxa bagenitza, ez genioke ohostu beharko naturari horrenbeste lehen ekairik. Beraz, natura bera bizirik gorde gura badugu, zaramen probetxatze eta baliatzeari garrantzi handia eman behar diegu. Papera pilatuz eta birtziklatuz,\* hainbat zuhaitzen bizitza salbatzen dugu. Tonelada bat paper zuntz\* birtziklatuz, tonelada bat zur ekonomizatzen da. 1,4 milioi tonelada paper birtziklatu izan da Frantzia 1972. urtean. Atera kontuak, zenbat zuhaitz geratu den bizirik horri esker!

Duela zenbait urte, zaramen ondasunak biltzea ez zen begi onez ikusten. Piltzarketariak,\* gizartearen piramidean, behe beheko aldean zeuden; baina, denborarekin, aberastuz joan dira. Egutero, papera biltzea, txatarra\* eta antzekoak biltzea, negozio galanta izaten da (galde, bestela, txatarrariei). Etorkizuneari, garrantzi handia hartuko du ogibide honek; modernizaturik, noski. Hori dela eta, hurrengo artikuluan, zaramen ondasunak errekupeartzeko dauden sistemak aztertzea pentsatu ukan\* dut.

J. R. ETXEBARRIA

## ipar aldea



### Donapaleu egun\* eta bihar

Donapaleu,\* Baionatik hirurogei eta Pauetik laurogei kilometrotan aurkitzen den herri gotorra\* dugu. Azken hamar urte hontan izan du kanbiamendurik. Hango karri-kei\* behatzen\* baldin badiezue, berehala ikusiko duzue azkarki\* aldatu, berritu eta edertu direla hango merka-taletxeen ate aitzinak. Merkataletxe zaharrik, barne ilun eta nahasirik, ez da gehiago bat ere ikusten.

Donapaleuko merkataritza itxuraz aberatsa agertzen bada ere, ezin dezakegu bide berez esan, merkataria-beratsak direla. Zeren,\* beren etxeen eta tresnen berri-tzapena egin duten beste ofizio guztiek bezala, diru asko maileguz\* hartu behar izan baitute hein\* hortara-tzeko.

Donapaleuko merkataritza berritu, edertu eta azkartu baldin bada, bere inguruan duen baserri multzo ederrari esker da egin. Zeren, inguruko herri ttipi guztietan, mer-kataletxe gehienak hetsi\* baitira, herriko jendea oraino gutiagotu ere, eta gelditzen dena, auto jauzi\* batez Do-napaleura, «hirira», baitoa, merkatu eguna izan zein ez izan, bere asteko erospenen egitera.

Eta ez dezagun ahantz esatea, Lurberri etxearen haun-ditzeak ere bultzada berri bat eman diola merkataritzari. Etxe horrek ehun ta hirurogei bat langile enplegatzen ditu, eta sei mila elkarkide ba ditu.

Donapaleuko merkataritzak, ordea, ez du bere geroa beste ofizioak baino gehiago segurtatua. Zeren, erosgailu guztien prezioa orain arte bezain laster edo lasterrago goiti\* joaten bada —egia esan, oraingo azkeri edo na-bari\* da hala joanen dela—, orduan, merkataritza horren oinarri edo zimendu den jende laboraria gero eta gutiago gastatzeari ariko baitzaio nahitaez. Bizibeharrak hortar-zen badu, xuhurkiago\* biziko baita.

Beraz, Donapaleuko merkataritza azken hamar urte hontan ederki muntatu da. Itxura guztien arabera,\* ordea, merkatariek oraino indar handia egin beharko dute, beren egoeraren segurtatzekotz.

Non aurki dezakete Donapaleuko merkatariek, beren geroaren segurtatzeko egun\* beharrezko eta baitezpada-ko\* duten oinarri berria? Lantegintzan, industrian, du-darik edo zalantzarik gabe.

Zertan da egun? Donapaleuk, bere bi mila bizilagune-kin, lantegi bakar bat baizik ez du. Oinetako edo zapata egiten ari dena, eta berrogei ta hamar langileri lana ema-ten diena.

Donapaleuk ez du industrial eremurik\* muntatu orain arte. Laborantzari, merkatalgoari,\* turismoari eta eskolei buruz ditu muntadura gehienak eraiki. Orain, bere biharko bizibidea segurtatzekotz, dudarik ez da, lantegiei buruz behar duela muntadura berrien altxatzen hasi.

Hortaratzeko, Herriko Etxeak behar du deliberatuki industrial eremu baten apailatzen hasi. Agian,\* sobera\* berandu gabe hasiko bide\* da!

### Baionan prefetura?

Baionako Merkatalgo Ganbarako buruzagi den Saint Martin jauna berriz ere puntu berari buruz ari zaigu, «Ac-tivités en Pays Basque» deitu\* agerkariko\* azken zen-zakian egin duen aitzin\* solasean.

Duela hilabete bat jo zuen pilota horrek, Paueko prefeturan ere punpatu\* duela dio oraingo hontan, eta oihartzun\* on bat ere ukan\* duela, zeren prefetuak jakin erazi baitu, alkateen eta bizibideaz arta\* duten erakun-deen\* bilkura batzu,\* Pauen egiteko orde, Baionan egin litezkeela.

Saint Martini ongi iruditzen zaio hori; baina horrek ez du, haren irudiko,\* Paue eta Baionaren arteko hauzia osoki xurituko,\* zeren, harek dioenez, Baionak adminis-trazio edo bulegaritzak\* aldetik osotasun bat behar baitu, mugaz haraindiarekin ukanez dituen harremanei bereziki baldintza hoberenekin buru\* egiteko.

Izanen da oraino tirabira franko euskaldunen eta biar-nesen artean, Baionan prefetura bat behar dela eta ez dela.

### ZABAL 12

ZABAL aldizkariaren hamaikagarren zenbakia argita-ratu berria zaigu. Ba du, oraingo hontan ere, euskaldun irakurle ikasiarentzat non zeri lot.\* Eta partikularzki, eus-kal marxismoaz Jose Azurmendik egina duen idazlan lu-zea, hogeitau hotoaldetako,\* «sujetu» eta «objetu» hi-tzak gai bezala hartuz moldatua. Bistan da, goi mailako lana dela. Hala ere, dudarik ez da, izanen duela irakurle.

Beste artikuluen gaiak hauxek dira. Euskal departa-menduaren gorabeherak, J. L. Davant-en lan interesgarria. Gerla ondoko politikazko akordioen urratsak.\* Abenduko greba jenerala. ETako batzu autokritikatuz datozkigu. Le-gezkoa, justua eta zuzena. Emaztea eta hiltortzea.\*

Dezagun esan, bestalde, nola numero honekin batera atera duen ZABALek seihun bat hitzetako hiztegia, eus-kara batuan egina. Honek ere izanen bide du baliatzaile.\*

### Antzerkilariak lanean ari

Negua datorrenean, aspaldiko ohiturari jarraikiz, ez-ker eta eskuin, gure antzerkilariak lanean hasiak ditugu. Hala nola «Xuri Gorriak eta» izeneko antzerkia, gure adis-kide Daniel Landart-ek ondua,\* Hazparnen eman beharra dute. «Paper Mende», aldiz,\* Piarres Larzabal Zokoko\* erretore jaunak aspaldi egin\* antzerkia, Urepele-Aldude-ko gazteek eman gogo\* dute. «Noiz» antzerkia ere, uste

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA - Pelota, 4-1.

Apart. 495 - Bilbao-5.

ANAITASUNA hartu nahi dut

Izen-deiturak .....  
 Bizilekua .....  
 Herria .....  
 Probintzia ..... Tel .....  
 .....

dugunez, beste nonbait ematekoa da. Eta, guk ez jakinean, han edo hemen ari bide da beste talderik ere, antzerki apailatzen,\* hala nola «Hiruak bat» taldea.

### Baigorritik Urepelerako bidea

Baigorritik Urepelera hemezortzi kilometro dira. Ez da, ordea, beharbada, Ipar Euskal Herri guztian, horrelako beste bide zatirik, jendea horrek bezainbat mintza eta kexa erazten duenik.

Baigorritik Banka, Aldude eta Urepelera doan bide hori ez da behin ere behar den bezala antolatua izan. Noiznahi agertzen diren zuloak noizean behin estal, lehortzen diren harresiak konpon, han hemenka zenbait itzulgune gaixto zabal, eta kitto! Bidea, oro\* har, beti bezain txar geratzen edo gelditzen da.

Urtean behin egiten da Urepelen behi markatzea, maiatzkari\* behiak Sorogaineko bazkalekuetara bidaltzen diren egunean. Egun hortan, bistan da, Paueko prefetua edo Baionako haren ordaina joaten dira Urepeleraino. Eta behin baino gehiago joan dira bata edo bestea helikopteroz, bidea estatu txarregian izanez. Egunero bide hortan gaindi\* ibiltzen direnak, horrela ibiltzen ahal balira airebidez, ez lukete gehiago kexatzekorik, ez eta haien berebilek\* iraupen laburra izateko segurtamenik!

Azken denbora hauetan, beraz, eskualde\* hortako jendea, eta bereziki jende gaztea, mugitzen hasi zaigu. Bilkura bat baino gehiago egina izan da, dela Urepelen, dela Aldude eta Baigorriin. Bilkura horietan eginak izan diren oharpenak, hiru izkiributan\* bilduak izan dira eta hirurak bata bestearen ondotik Paueko prefeturara bidaliak, lekuko alkateen eta 120 bat gazteren sinadurakin.\*

Orainokoa\* ez dute ondoriorik izan. Bat baino gehiago gogoetaturik\* dago, ez izanen duten ere. Mugaz bestaldean gure anaia nafarrak bide eder batzuren\* jabe ikusirik, nolaz ez pentsa, eskualde hortako jendeek berdin bide ederrak izanen zituzketela, baldin, Pariseri lotuak izateko orde, lehenago bezala Iruineari lotuak izan balira egun ere.

Batek baino gehiagok amets egin dugu, Iruinetik Baionarako bide haundiaz. Ideia aspaldikoa da. Eta ez da, oraingo itxuren arabera, hamar dotzena bat urtez eginen. Altabada,\* lekuko ekonomilari guztien arabera, Nafarroako bizidearentzat baitezpadakoa\* da Baionako itsasportua.

Zorigaitzez, Pariseko jaunek ez dute begi onez ikusten. Iruineak Baionarekin muntatu nahi lukeen ekono-

miazko lokarri berri hori. Madrilek bere aldetik berdin. Eta azken urte hauetan bide haundi horren egitea erabaki ez baldin bada, huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke, Parisegatik izan dela.

Hala ere, bide haundi hori egun batez eginik ikusteko esperantza ez dugu galdu nahi.

Gexan LANTZIRI



# bizkaia

### Kantari talde berri bat Barakaldon

Bizkaiko herri haundi —130.000 bat bizilagun ditu— eta erdaldun honetan, euskal kantari talde berri bat sortu da iragan otsailean.\* Hamabost urtetatik hogeita bost urtetararteko zazpi neska-mutilek osatzen dute taldea: hiru jole eta lau kantari.

Taldearen izena, Sorginzubi; eta haren oraingo xedea,\* euskal kantu zaharrak biltzea eta zabaltzea. Otsailaren 2an, igandekari,\* atera ziren lehen aldiz jendearen aurrera Barakaldon, txalo eta goresmen ugari bilduz. Zorionak, eta iraupen luzea ukan! (Joan Mari Mendizabal)

### Bilboko azpitrenaren asmoa aurrera doa

Ihaz ezaguterazi zen, Bilbo eta inguruko herrietan zehar lur azpiko tren bat egiteko asmoa. Egia esan, beharrezkoa zuen eskualde\* honek holako tren bat, oraingo komunikabideak guztiz eskasak baitira, bertan bizi dan milioi bat lagun ingururen zat.

Baina nola egin? Nork? Nondik atera dirua? Etxe eta Bidegintza Ministergoak dei bat egin zuen. Dei horri erantzuteko, iragan otsailean batzarre berezi bat egin du Bizkaiko Diputazioak. Batzarre horretan elkargo\* berezi bat sortzea erabaki zen. Estatuaren, Diputazioaren eta tren horrek zeharkatuko dituen herrietako Udalen\* artean. Baina gauza xeble bat: Estatu Diputazioarekin sartu omen da harremanetan, Bilboko Udala alde batera utziz. Horregatik, Diputazioaren eta Bilboko Udalaren artean tirabira batzu\* sortu omen dira. (Joan Mari Mendizabal)

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

### Bilboko «Bizkai» taldearen deia

Bilboko «Bizkai» taldeak, bere eginkizunen berri emanez, horri batzu\* banatu ditu hiriko zenbait alderditan.

Gure talde hau sortu berria duzu. Gure ardura bereziarena Euskal Herriko folklorea jorratzea eta zabaltzea da, ahal dugun neurrian, gure herrietan galduz doan folklorea herriari azalduz.

Herriaren kultur maila jasotzeko\* kezka honek, gehienoi hain ilun zaigun euskal folkloreak mundura sar erazten gaitu; eta hemen sarturik, geure axolagabekeriaren eta jakin nahi ezaren hautsi beharra ikusten dugu, batez ere beste

herri askoren ondoan atzeraturik gaudela gogoan edukiz eta geure nortasunaren sendotzeko premia gorria ikusiz.

Kondaira, sineskeria eta erlijioaren aldetik begiraturaz, geure dantzak aztertu nahi ditugu, janzerak ikertu, kantuak eta soinu tresnak arakatu\*, eta horrela fitxategi on bat moldatu. Irakaskuntz arloan ere lana egin gura dugu, eta, horretarako, gure asmoak betetzen saiatuko diren irakasle eta begiraleak sortu.

Diogunari ondo datorkiola ikusirik, Iruineko «La Verdad» aldizkariak esan zuena jarriko dugu ondoan:

«Dantza hauk\* Frantzian edo Ural mendien inguruan sortu balira, baratzain\* batek baratzeko loreak zaintzen dituen bezala jagongo\* zituzketen. Eta USAn sortu balira, dolarrez estalita gordeko zituzketen. Eta hemen zer? Hiltzen uzteko kapaz gara, bitartean edozein «hippy» taxutako\* ohiturak onhartuz. Eta hilgo balira, hiltzen utzi ditugulako, aieneka hasiko ginatete, orduan gure nigarra, iragana birpizteko gauza izango balitz bezala».

Benetan lan ederra da, gure asaba zaharregandik datorki-gun altxor\* beneragarria batzea, osatzea eta herriaren aurrean azaltzea. Baina geure baldarkeria eta arduragabekeriagatik, edo eta besteren laguntzarik ezagatik, altxor hori galduko bagenu, benetan lotsagarri izango litzateke.

Neska-mutilok, langile zein ikasle, 14 urtetarik gorakoak izateaz beste ezelako\* muga ez baldintzarik gabe etor zaitez-kete. Dei honekin geure adiskidetasuna eskaintzen dizuegu, eta bide batez zuen laguntza eskatzen. Gure «Bizkai» taldera etor-tzea nahi dugu. Talde honek egiten dituen ikertze lan, hitzaldi, ibilera eta mendiratzeeetan parte hartu ahal izango duzue, eta bide batez zenbait euskal dantza ikasi. Euskal Herri osoan ibiliak gara, hegoaldean nahiz iparraldean. Gure herria eza-gutzeko aukera ederra izango duzue.

Gurekin harremanetan hasi gura duzenok, edo gure ekin-tza hobeto ezagutu nahi duzenok, etor zaitezte, astearte\* eta ostegunetan,\* Iralabarriko Vista Alegre 5era, arratseko 8etarik 9 ta erdiak arte. Han gaituzue zuen zain. («Bizkai» tal-dekoak).

## Ondarroako «Kresala» taldeari erantzuna

ANAITASUNAREN 290. zenbakian eta 8. horrialdean, Ondarroako «Kresala» elkarteak bere pentsaera eta jokabidearen berri ematen digu.

Jokabide hau, «geure Herriarentzat guk aurkitu dugun erantzunik jatorrena» dela esan ondoren, berriematea besteren\* eritzien eske dator.

Hona, beraz, nire ohar batzu.\* «Gure hurrek eskatu eta esijitu egiten digute...» diozu. Objektiboki mintzatzen bazara, zorionak haur horien kontzientziagatik.

«Haurren Egunetako meza ofizial horik\*... geroko ala lehengo Herri baten ezagutgarri direa\*?» galdetzen duzu. Ez lehengo eta ez geroko Herriaren ezagutgarri, adiskide, oraingo Euskal Herriaren nortasunaren agerbide baizik.

«Zergatik (eliz girotik kanpoan Euskal Herriaren alde lanean dihardutenak)... Eliza batekin topo egitera behartzen ditugu?» galdetzen duzu berriz ere. Horretan arrazoina ematen dizut. Ez litzateke inor behartu behar, ez talde bezala, ez pertsona bezala; baina ez eta galerazi ere.

«Elkarte honetako edozein taldek, talde bezala, ez du parterik hartzen, ezelako meza, elizkizun, edo beste edozein erlijio arazotan». Erabaki honi itsu, hertsiki\* eta negatibo hutsa erizten diot. «Kresala» elkarteak, euskal kultura jomugatzat hartzen badu, euskal meza, euskal elizkizun edo beste edozein euskal erlijio arazotan parte hartu behar luke, baldin bere

buruari euskal kultur adar bat kendu nahi ez badio. Edo eta pluralismoak nortasun eta herritasun mozketara behartzen ote gaitu? Edo eta, pluralismoaren izenean, hauekin denok «tabula rasa» egitea erabaki ahal duzue? (P. Z. Legarreta)

## Jose Torrealday hil da

Otsailaren 22an hil berria da Forua-Gernikan Jose Torrealday jauna, ANAITASUNA aldizkariaren zuzendari dugun Joan Mariren aita. ANAITASUNAKO lankide eta irakurleok oro zeuekin gaituzue doluminean, Joan Mari adiskide eta zure etxeko guztiok. Goian bego!



## «Domingo Agirre» Elaberri Saria, 1975

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren saria, Euskaltzaindiak eratu. Hona hemen oinharriak, Euskaltzaindiak 1975.eko urtarrilaren 28ko batzarrean onhartuak:

1. Euskaraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968) erabaki zuenaren arabera (ikus «Euskera», XIII, 1968, 250. hor.), baina literatur balioak lehenago kontutan harturik.
2. Egileak bere kabuz eginga izan behar du lanak. Ez da ontzat hartzen ez itzulpenik eta ez bestetatik egingako antolamenik.
3. Lanaren neurria 100 horri gutienez, alde batetik makinaz idatzia, ferroune bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 paper neurrian.
4. Sari bakarra, Bizkaiko Aurrezki Kutxak jarritako 50.000 pezetatakoa, zatiezina.
5. Saria eman gabe gelditu daiteke, epaimahaikoei hala iruditzen bazaie.
6. Lanek argitara gabeak izan behar dute; eta lan bakoitzaren hiru kopia bidali behar dira Euskaltzaindiaren etxera (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6 - Bilbao-5), 1975.eko utzailaren 24erako. Lan bakoitza lema batekin izenpetua, eta lemaren giltza estalia, egilearen izen-deiturekin.
7. Epaimahaia Euskaltzaindiak izendatuko du.
8. Saria, urriaren 31n, Aurrezki Kutxan egunean emango da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren etxean egingo den jaialdian.
9. Arau hauen interpretatzean sor daitezkeen arazo guztiak, Euskaltzaindiak izendatutako epaimahaia erabakiko ditu. Eta erabakiaren kontra ez dago inolara joaterik.



## Hizkuntz anarkia

Bai, anarkia. Eta edozein lekutan, gainera.

Linguistik arloan mugitzen ez garenok, «gaizki eta guti dakigunok» ere, zenbait eskari egin nahi genioke, hizkuntz mailan dugun Euskal Akademia erakundeari.\*

Beste edozein arlotan jokatzeko den bezalaxe egin behar bailitzateke han. Gure uste apalean, jokabide hori hauxe litzateke: erregela batzu\* onhar, beraiei euts,\* eta geroxeago beraik finka. Zeren\* eta «berez» ez baika-ra inoiz anarkia horretatik aterako. «Berez» ber lekuan segituko baitugu.

Eta ikusitakoa ikusi ondoren, erregelak finkatzeko epea gaur bertan bete delakoan gaude. Ala zazpi urte (!!!), 1968.etik gaur arte, ez ote da ezer?

Eta finkatze horri bagagozkio, zer esan gure hizkuntzaren izenaz? Izanaz ere asko eta luzaro behar litzateke mintzatu; baina ez gaur eta ez hemen. Noiz arte iraunen du, banatzen eta hiltzen gaituen hizkuntzaren «aberastasu» delako horrek?

Euskara moderno batez baliatu nahi genukeenok («gazte hauen lotsarik eza!» esanen duke\* norbaitek), ortografi arloan anarkia baino ez dugu ikusten.

Egoera horretatik irteteko, bazter ditzagun erdikoikeria guztiak, ordua baita; eta, ausart\* izanik, eman diezaio-gun hizkuntzari, bai sozial mailan bai eta ortografi mailan ere, behar duen bultzada ederra.

Hona hemen, besteren artean, zenbait esenplu, batzuren zat bitxikeriak badira ere:

- **euskara** hitza, gure hizkuntzaren izen jatorra (**euskara**) estaltzen duena.
- euskararen «aberastasu» delako hori hain ongi erakusten duten demostratiboak, **ho(r)i(e)k** lekuko.\*
- arboladi bat balitz bezala —eta zeharo gaizki— onhartutako **Euskaltzaindia** izena.
- nazioarteko **telefono** hitzaren ordez, asmakeria hura.
- H madarikatu gabeko **orri**, **hosto** hitzaren ondoan.
- azak jateko gogoak dakarkigun **azaroa**. Noizko **hazila**?
- matematik arloan erabiltzen diren zenbait hitz, gure ezjakintasuna ez erakusteko erabil ditzakegun **plus**, **minus**, **inter**, **bider** sinboloak onhartu beharrean.
- **ingurrazti** edo dena delakoa.

Goikoak anarkiaren erakusle batzu baino ez dira. Gehiegi ote litzateke «aberastasu» hau garbitzea?

Boza eta botua dutenak mintza daitezela, eta, behin betiko ez bada ere (oxala balitz!), proposa dezatela irtenbide bat. Horretan mesede handia egin dezakezuenon erabakien zain gaituzue. (JOSEPE.)

## Nori berea...

Nonbaiteko norbaitezuk,\* aspaldion, euskaldun askorentzat —zenbait arlotan bederen\*— oso estimatua den lagun bat maiz\* aipatzen dute, eta ez, prezezki,\* erabat\* asmo garbiz. Pertsona hori, bestalde, euskaltzaina da, eta, geroago ikusiko ditugun arrazoiengatik, ez du gaur egun bere buruaren alde

egiteko era egokirik. Horregatik, nik uste, zuzenbidea\* zer den kontuan harturik, hartaz zertxobait esatea erabaki dut. Federiko Krutwig bizkaitarraz ari naiz.

F. Krutwig Sagredo 1921. urtean jaio zen Getxon. Kimikazko estudioak egin ondoren, hizkuntzak ikasten saiatu zen. Neurri berean ez bada ere, hamasei hizkuntza ezagutzen omen ditu: euskara, alemana, nederlandera, ingelesa, gaztelania, frantsesa, italiara, errusiera, arabiera, grekoa, latina, pertsiera, georgiera, txinera, vietnamiera eta bengaliera.

Gogozkoena, ordea, euskara izan zaio beti. Horregatik, 1942.ean, oraindik 21 urte zituela, Azkuek berak euskaltzain laguntzaile —urgazle, orduan esaten zenez— izendatu zuen, eta handik urte batzutura, 1947.ean, euskaltzain osoa egin zuen Azkueren eskariz.\*

Krutwigi zor zaio, Mitxelenak inoiz Euskaltzaindian aipatu duenez, gerra ondoan Akademia ilunpetatik argitara ateratzea. Hargatik, gainera, Euskal Akademiako bilerak, ordurarte erdaratutako hutsean egiten zirenak, euskaraz egiten hasi ziren. Euskarari buruz, batez ere Kaukasoko hizkuntzekiko ahaidetasunaz\* den bezainbatean, hainbat lan egin zuen, Euskaltzaindian presentatuak, eta, orduko agiritan\* ikus daitekeenez, biziro txalotuak.

Lizardik gerra aurrean euskara «oro(tarako) mintzo»tzat nahi bazuen, Krutwig izan da gerra ondoan izpiritu hura\* aurrera eramaten jakin zuen lehenbizikoa. Jadanik 1951. urtean euskaldunok euskará denetarako kultur bide bilakatu\* eta erabili behar genukeela aldarrikatzen\* zuen, bai eta bere esenplu propioaz bide hori erakutsi. Eskari hori gaur egun —sotadun batek ezik— guztiok onhartzen dugun gauza da; baina orduan zorakeria bat, utopia bat, gazte txotxolo baten ausarteria\* inozo\* bat-tzat hartzen zen.

Krutwigez, euskarari kultur tresna izatea galerazten zioten kausak aztertu eta salhatu\* egin zituen: garbizalekeria eta populismoa. Horien kontra, berak beste bide hau proposatzen zuen: klasikotasun eta unibertsalismoarena. Horren kariaz,\* XVI eta XVII. mendeetako euskal klasikoen obrak berraztertzea gomendatzen zuen, Leizarraga eta Axular bereziki, bai eta kulturaren eta teknikan nazioarteko hitzak onesteko aldarrikatu, berauen jatorrizko idazkera eta guzti, hizkuntza unibertsalek (ingelesak, alemanak, frantsesak...) egiten duten bezalaxe, gaztelaniaren kultur uztarriean iraun barik.\* Haren ustez, gaztelania ez da kultur hizkuntza inportante bat, eta ingeles eta alemanen eraginpean datza;\* horregatik, haren orthographiari segitzea ganoragabekeriatzat\* daduka.

Kriterio hori —batez ere grekotik datozen hitzei aplikatuz— onuragarria\* dateke,\* eta Mirandek eta Peillenek bide berbera hautatu zuten; baina geroago, espainol orthographiaren eraginpean, askok bide unibertsalago hura ahantzi dute.

Dena den, euskará kultur tresna moderno baten bilakatzean getxotarraren teori oinharriek ukaezinezko meritu bat ukan\* dute; eta euskara batuaren premia —honez gero inork dudan jartzen ez duena— berak birplanteiatu zuen lehengo\* gerra ondoan. Azkueren «gipuzkera osotua» hura, Espainialdeko Eus-

## Carnicería BENJAMIN Harategia

Txahal eta bildots ezin hobekak  
Oilaskoak eta untxiak  
Txahal hanka eta tripaki bikainak

Camino de Trauco, 5  
Telefonoa: 454044

BILBO-7

kal Herrirako pentsatua eta soilki hemengo euskalki mintzatuetan oinharritua, hilik jaioa zen. Krutwigek literatur hizkuntza batutzat lapurtar klasikoa ezarri zuen; baina hori nagustu\* ez bada ere, gutienez literatur hizkuntzaren funtsean\* ekialdeko\* euskalkien garrantzia nabarerazteko\* balio ukan du, egungo gipuzkoar-nafar-lapurtarra sort zekigun. Haren lanak irakurri nahi dituenak, Gernika, Euzko-Gogoa eta Egan aldizkarietara jo dezake. Zinez\* esan daiteke, nik uste, gaurko belaunaldiak\* Krutwigek hizkuntz planteiamenduei askotxo zor diela, zuzenik edo eta zeharretara, maiz aski\* bizkaitarraren ideiak inoren ahoek eta lumek barreiatu\* baitituzte, eta ez beti iturburua aitortuz.

Politikan, ordea, gustu kontrastagoak\* daudeke\* hari buruz. Luis Villasantek Akademiarako egin zuen sarrera hitzaldia-ri erantzunez, Federiko jaunak txosten\* «ausartegi»\* bat irakurri zuen euskararen alde, eta, hura zela eta, hemendik ihes egin behar ukan zuen.

Frantzia zegoela, Vasconia liburua eman zuen argitara, Gaztañaga jaun apezak bere irakurleek astiro aztertzea nahi ukan arren, hain errax lortuko ez dutena. Eskuratu eta etxean edukiz gero, gainera, Espainiako legeen kontra leudeke\* ha-



Federiko Krutwig

lakoak, liburu hori bai Espainian eta bai Frantzia galerezirik dagoelako. Obra horretan Euskal Estatu separatista eta sozialista bat proposatzen du, eta noski, asmu\* zital horretarako, Estatu bi horien nazional batasuna ukatzen du gaiztoki. Vasconia liburua El español aldizkariaren horrialdeetatik biziro konbatitu zen, eta, hura zela eta ez zela, Krutwig Frantziatik egotzi\* zuten.

Liburu horretan, bestalde, P.N.V.ren politika bakezalearen kontra agertzen zen egilea, eta haren ordez iraultza harmaturik gogorrena proposatzen. Euskal burjeseriaren ahozko abertzale-tasun erdaltzalea gogorki salhatzen zuen, bai eta Eliza Katholikoaren hierarkhiak Euskal Herrian —haren ustez— edukiriko portaera txarra bera ere, moja\* eta fraideen ikastetxeak barne. Erljio kontuan, Pio Baroja eta Jon Miranderaren antzera, kristautasunaren kontrako porrokatua izan da beti, sineskera horri judu etorki\* kanpotarreko eritzirik.

ETAkoen kontseilari izan da luzaro, eta, ezker aldeko politikan sarturik, Europako ethnia ttikien alde jokatu du beti. Maoren liburu gorria txineratik euskarara itzulua du, eta bere politikazko pentsamendua azalduz, bai euskaraz eta bai erdaraz, artikulu eta lan asko ditu.

Jaun honen indarkeriazko jarrera\* hauengatik, noski, edo zeinek pentsa zezakeen pertsona gogor bat dela; baina egia, dirudenez, ez da inondikan holakoa. Getxotar horrekin izugarriko adiskidetasuna zedukàn Jose Etxebarrieta abokatu defuntuak —Txabiren anaia, bera— kondatzen\* zuenez, Federiko bere harreman pertsonalez oso mantsoa izaten zen, lagun gizabidetsua eta euli bat hiltzeko gauza ez zena. Gauza pitxia benetan!

Sineskeraz buddhista, dibortziaturik dago; eta bigarren bi derrez ezkondu zen, orain urte pare bat, belgikar andre irakasle batekin. Itzultzaile lanetatik bizi da. Aspaldion, diotenez, ez du bere burua marxistatzat jotzen. Marxismo-leninismoa, haren ustez, ukazinezko emaitza batzu\* gorabehera,\* jadanik\* gauditurik dagoen filosofia bat da. Bera sozialista edo, bere hitzez, erkide (= erdi + kide) da, bere gogoko sozialismoa (erkidegoa) ethnokratikoa delarik, hots,\* herri konkretuen ethni balio bereziei zuzendua eta egokitua,\* dogmatismo eta gehiegizko orokortasun\* abstrakturik gabekoa. Ez dirudi, horregatik, ismo horrek, oraingoz bederen, jarraitzaile askorik duenik.

Eta hauk\* ditugu, oro\* har, jaun horren meritu eta bekatu larriak. Batzuekin batera ez etortzeak ez du esan nahi, noski, besteak ere ukatu behar zaizkiola; zeren,\* inork bestela baleritzo\* ere, bi eta bi beti lau izanen baitira, gure gogoko ez den deabru jaunak berak esan arren. (Xabier Kintana)

## Liburu berriak

### 1. UGALDE, Martín:

Tres relatos vascos.

Txertoa, San Sebastián, 1974

Gazte gara, gazte, eta beharbada horregatik errealtatea gure nahia bezain agudo\* alda daitekeela uste dugu maiz.\* Euskal kultura, eta areago\* literatura, euskaraz eta ez bestela egin behar dela, honez gero aurrerazale guztiek onharturiko legea zela uste genuen. Baina usteak alde erdia ustel, eta horra non geunden\* erabat\* okerturik. Horixe baita, azken batez, Martín de Ugalde jaunaren liburuak pentsaerazi diguna.

Ez noa ni, andoaindar ohoretsu horren erdal konduok\* literatur aldetik juzkatzera. Gaztela ama guztiahaldunak sobera\* daduzka lan horretan muturra sar dezaketen umeak, guk egin

**ELAIS ALAI**  
**YURRE**

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

**SOINU KOADROFONIKOA**

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

gabe ere. Ez! Ene asmoa besterik da: lan horien erdaltasuna bera aztertzea.

Beti uste ukan\* dut, euskal gaietako buruzko erdal lanak, propaganda eta dibulgaziorako direnean, komenigarri eta defendagarri direla. Alde horretatik, Martín de Ugaldek berak, bere «Hablando con los vascos» eta «Síntesis de la Historia del País Vasco»rekin, bere buruaren promozio politiko bidezko\* bat egiteaz batera, informazio eta erakartasun\* estimagarri bat egin du euskal arloaren onerako. Ez da hor zer esanik.

Besterik da, aldiz,\* dibulgazio eta propagandaz gainera, erdaraz literatura egiten hasten zaigunean; are\* gehiago, erdarazko literatura horrekin —gaia hemengoa dela eta— «euskal» literatura egiten duela dioskunean.

Nolabait, Unamuno eta Barojaren garaian arazo hau erabat garbi zegoen ala ez eztabaida daiteke. Baina José de Arteche eta Pelay Orozkoren denboran problema hori erabakitzen emana izan da, eta, horretaz,\* ez dakusagu\* zergatik, inolako buldarik\* onhartzen ez badugu, beroriengan bekatu larritzat hartzen duguna, Martín de Ugalderen kasuan, geroagokoa izan arren, barkagarri izan behar denik.

Ipuin horietako bat, «Los gitanos» halegia,\* Bilboko «Premios Guría»ra presentatu zen, hots,\* euskal lanik presentatzerik ez zegoen Euskal Herriko sariketa batera. Hor, hasteko, konkurrentzia desleial gisako\* bat nabari\* daiteke. Ez bekigu, beraz, egilea harri geldi, holako iturburuaz besteok erdal konduen txapelketan sarizaturiko lanei «relatos vascos» esateaz conforme ez bagaude.

Baina obratxoaren hitzaurrea irakurri bezain agudo, Ugalde bera titularen justifikazioa ematen saiatzen zaigula dakusakegu. Latinezko atsotitzetan\* oso trebe ez garen arren, «recusatio non petita, accusatio manifesta» delako bat bururatu zaigu berehala: «eskatu gabeko defentsa, akusazio agerria» izaten dela, halegia. Ez da hor zer esanik. Bere buruaren edo eta obren euskalduntasuna defendatu behar duenak, burruka alde aurretik galduta duela begien bistako kontua da. (Xabier Kintana)

## 2. ARMAGUE-RIFA:

Eguneroo gauzak (2).

La Galera-Cinsa, Bilbo, 1975.

Sail honetako lehen liburuak ukan\* zuen arrakasta\* handia ikusirik —agortu egin baita—, hura\* berrargitaratzea ezezik,\* bigarrena ere euskaratzea interesgarri dela pentsatu izan dute eragileek. Euskaratzailea Xabier Mendiguren izan da. Irudiez eta textuaz denaz\* bezainbatean, lehen liburuaren berezitasun berberak ditu bigarrenak ere. Beste lau gai lantzen dira hemen: erosketak, animaliak, ikastola eta mendia. Azkenean eranskin bat dakar, textuak hobeki sakontzeko galde sail batzurekin. Lehen liburuaren arrakasta berdina opa diogu bigarren honi ere.

## 3. ARZE, Joxe Anton:

Laino guzien azpitik..., Donostia, 1973.

...eta sasi guztien gainetik, Donostia, 1973.

Gutienik espero zenean, irekitasuna seriozki doala erakutsi guran edo, T.O.P.eko juje\* arduradunak hegan\* utzi ditu Joxanton Arzeren poesi liburu eder biok. Aipatu obra biok ihaz bahituak izan ziren eta liburudendetan saltzen galeraziak.

Poema liburuok, sorginek hegaz\* egiteko erabiltzen omen zituzten hitz magikoen izenez titulaturik, Zumetaren irudi

ederrez horniturik daude —txoriz, zehazkiago—, eta poesiarenari lehen mailako pintatzaile horren kalitatea gehitzen zaio horrela.

Liburu biotan Arzek, orain arteko inork ez bezala, euskal onomatopeien balio estetikoak sentierazi digu, graphia, hitz konposaketa eta hutsarteen\* erabileratik mami handi bat ateraz. Geure buruari poesi kritikari on ez baderitzogu ere, ez da konprometzuzko esan bat, Arzeren poemek zerbait berri erakutsi digutela. Eguneroko bizitzaren topiko eta «statu quo» asko birrintzen ahalegintzen da, eta maitasuna, bai sexual eta bai izpiritual den maitasun bat, kantatzen du, laudatzen, sentitzen, gazte gisa,\* oraingo gisa, aldarrika,\* lotsagabeki.

Zirrara\* senti daiteke, beronen poema asko irakurtzean; eta hori, noski, ez du endelegu\* hotz batek lortzen, sentimendu eta bihotzak baizik. (Xabier Kintana)

## 4. KINTANA, Xabier:

Gure piztitzoen artean.

Cinsa, Bilbo, 1975.

«Cinsa-Iker» taldekoek liburuska berri bat ipini dute ikastoletako haurren eskuetan. Lan polit eta atsegina, Xabier Kintanak burutu\* duena.

Sarritan gure haurrek ongi baino hobeki ezagutzen dituzte oihan\* urrunetako animalia arraroenen izenak eta ohiturak; baina beren inguruan ia oinpean dituzten piztitzo arruntenean\* inondik ere ez. Gure haurren nabaria\* den hutsune hau nolabait betetzeko asmoz egingo da liburu hau. Euskal Herriaren nonnahi aurki daitezkeen animalien ohiturak eta jakingarriz horniturik datoz horrialdeak: enarak,\* usoak, karramarroak, barraskiloa\* eta berea, urtxintxa,\* eta basurdea, muskerra,\* erbinudea,\* kukua, saguzaharra eta berauen antzeko beste zenbait piztitzo ageri da liburuskan zehar.

Pertsonaia batzurekin eta ipuin erara idatzirik dagoenez gero, guztiz atsegina eta entretenigarria gertatzen\* da; eta euskara erraza duelarik, haurrek ez tita irakurriko dutelakoan gaude. Akats bat aipatzekotan, barneko irudiak motel samarrak direla esatera ausartuko nintzateke. Biziagoak izan balira, asko irabaziko zukeen liburuak.

# ARANZAZU

Automobilak alokatzeko etxea



Avda. Hurtado de Saracho, 10

(Begoñako gasolindegia ondoan)

Telefonoak: 33 21 10 - 33 33 47

BILBAO-6

## Italiako «Democrazia Cristiana» etorkizunik gabe

«Democrazia Cristiana» alderdiaren zuzendaritzak, gazteen mugimenduetako ordezkariak bota, eta beste batzuek goitik izendatu ditu. Beste neurri gogor bat: gazteen mugimenduetan parte hartzeko adinaren\* muga 27 urtetatik 21 urtetara eraitsi\* du, gazte kontentagaitzenen, ikasle unibertsitarien protestak isilerazteko asmoz, haik\* zaharragoekin batu eta integratuz.

Gazte polemiko hauek DCren berrikuntza eskatzen dute. Hirurehun mila ba dira; eta, eskuin muturrekoekin, komunistekin eta sozialistekin bizi duen burrukan, gaur egun DCk ez diola Italiari hautakizun\* egoki eta errealista bat ematen ikusten dute. Eta hautakizun hori asmatzeko eta aurrera eramateko borondaterik eza salatzen. Berritu edo hil!: kristau demokrata gazteen garrasia.

Gazteek gogor kritikatu dituzte goiko koadruak. Fanfani idazkariaren\* burua eskatzeraino ausartu dira batzuek. Agian gehiegizko, goiko jauskila\* eta haundikientzat. Gazteon ordezkariak bota eta protestarien indarrak bikainenak\* helduagoen\* artean nahasiz, hortxe ikusi dute DCko buruzagiek gazte ausart\* eta berrizale hauen oihuak itotzeko bide bakarra.

Gertakari hauek DC barruko krisi sakonago bat adierazten dute. Ez da belaunaldi\* ezberdinen berotasun kontua bakarrik.

Azken urteetako hauteskundeetan,\* pixkanaka bada ere, beti galduz joan da DC. Kolperik handiena ihaz jasana\* zuen, maiatzaren 12ko erreferendumean dibortzioaren aurka jokatu zuenean. Ez ziren hauteskunde politikoak; baina inolaz ere ez esannahi politikorik gabekoak, alderdi guztiek ondotoxo ulertu zuten bezala. Hilabete gerorago, ekainaren\* 16-17an, Sardinia\* eskualdeko\* hauteskundeetan galera handiak izan zituen DCk. Gain behe-za zetorren; komunistek eta sozialistek, hauek batez ere, gorantz egiten zuten bitartean. Urriaren 17an, eskualde batzuetako hauteskunde administratiboetan berdin. Beheranzko abiada bizkortu egin dela dirudi.

DC ez da alderdi bat, alderdi asko baino. Elkarrekin zerikusi gutti duten, edo, areago,\* elkarren kontra dauden ideologi multzo nahastekatu bat kokatzen\* da haren erraietan.\* Talde politiko asko; bakoitza bere ideologia-ekin; eta batez ere bere interesekin. Bakoitzak ditu bere jarraitzaileak, eta hauei egindako agintzariak.\* Interes pertsonal hauek direla tarteko, alferriakoko bulegoak,\* kontseiluak eta batzordeak\* minbizi\* gaizto bat bezala joan dira haziz eta haziz ministergo guztien inguruan. Burokrazia izugarri hau ez da DCren arazoa bakarrik. Gobernutik pasatu diren guztiena baizik. Baina DCri, Gobernuan iragan dituen ia hogeita hamar urteek izugarriko astuntasuna ematen diote, eta erabaki ausartak hartzeko eskuak eta begiak lotzen. Bestalde, burokrata horien alferkeriak miliar\* lira asko zurruputzen dio Italiako pre-supostu ekonomikoari.

Jokabide politiko garbi bat behar du DCk. Otsailaren\* lehen egunetan Kontseilu Nazionalak egin zuen batzurrean, Fanfanik proposatua onhartua izan zen, ia 80% kontseilukide ados zeudelarik. Ihazko erreferenduma gaitzearekin Fanfanik bere burua jokatzen zuela uste genuenok oker geundela argi geratu da. Fanfani oso bizirik dago. Beharbada beste gidari taxuzkoagorik\* DCren barnean ez dagoelako. Hala ere, lehen aipatu\* batzarrean

DCren ezkerreko bi talde («Base» eta «Forze nuove») idazkariaren kontra azaldu ziren.

Baina idazkariarekin bat egiteak ez du esan nahi, DCk bere problemak konpondu dituenik. Alderdiko gidari nagusiek egin duten kontzientzi azterketa baino zer-bait gehiago behar da horretarako. Ideologi batasun bat lortu behar luke DCk. Zer den eta zer gura duen erabaki. Identitate krisia gainditu. Eta, honekin batera, bere baitako\* jauntxoaren interes pribatuak Italiako arazo larrien aterabideari makurtu. Haserreak sortuko baditu ere.

Hau guztiau egiteko gogorik eta kemenik izango ahal du DCk? Ahulduz\* doakio poliki poliki bere politik indarra. Italiaren une hestu honetan (ekonomi problema larria, kriminalitatea, terrorismo politikoa, lan gabezia...), erabaki oso mingarriak hartzea gertatu zaiola egia bada ere.

40% inguru boturekin, DCk agintearen 80% bere esku dadukala esaten da. Jarraitzaileak gutituz doazkiolarik, gorde ahal izango duia\* bere agintea, ala ezkerrean, sozialista eta komunistengana zabaldu beharrean aurkituko ote da? Bien bitartean, alderdi komunistaren izenean Berlinguer idazkariak proposatzen zuen «compromesso storico»a (funtsean, komunistak Gobernuan sartzea) berriz ere biribilki gaitzetsi\* du Fanfanik. Gaindi ezinezko ideologi diferentziagatik, eta une konkretu honen politikuskerara desberdinagatik.

Datorren ekainean izango dira hauteskunde administratibo orokorrak\* Italian. Ba dirudi, gazteekiko jokabidearekin, DCk leihoak hetsi\* dizkiela ezkerreko haizeei. Berrikuntza handirik ez da gertatuko alde horretatik. Eskuinean bere jarraitzaileak biltzeko asmotan dabil nonbait. Baina, gazteria baztertuz, arnasetuka\* bizi den alderdi zahar bat bilakatzeko\* arriskua du. Eta etorkizuna ez da zaharrena, noski. (P. Pagola)

## Eritrea: «terroristak» gudari bihurtu?

Haile Selassie-ren inperioaren kontra burrukatzen ziren Eritreako burrukariak, «terrorista» deitzen zituzten Mendebaldeko\* Estatu kapitalistetan. Orain, berriz, Etiopiak sozialismora jotzen duela ikusi dutenean, lehengo «terroristak» gudari edo burrukari bihurtu dira.

Eritrearrak lehen ez zuten arabiarren laguntzarik: Siriak, Iraqek eta Libiak bakarrik eskaintzen zizkieten harma apur batzuek. Orain, ordea, harmak eta dirua eskaintzen dizkiete Saudi Arabiak eta Persiar Golko aldeko emiratuek. Orain nahiago dute nonbait Eritrea askatua, Etiopia sozialista batua baino.

Hala ere, Etiopiak ez daduzka bere alde Estatu sozialistak; eta USARI eskatu dio laguntza, eritrearrak menperatzeko. Baina Estatu Batuen jokabidea zaila da, arabiarren kontra jarriko baitzaizkio. Izan ere, arabiarren Eritrearen alde jarri dira, Etiopiako militar taldearen kontra, berau petroliorik gabe gelditzeko arriskutan gelditzen delarik.

Bitartean aurrera doa eritrearren burruka, aspalditik inperialismoaren kontra dakarten ekinari\* bultz eginez. Barnean, kulturazkoak, hizkuntzazkoak eta erlijiozkoak dira eritrear burrukaren arrazoinak: Eritrea musulmana da, Etiopia, berriz, koptoa gehienbat. Honek ere Eritrearen alde eragin die beste Estatu musulmanei.

Bi talde izan dira batez ere, oraingo gudu hau hasi aurretik, urte askotan Etiopiaren kontrako burruka aurre-

ra eraman dutenak: Erit, eako Askapen\* Frontea eta Herriaren Askapen Frontea. Elkarren kontra ere jokatu dute, gerrillan ihardun duten bitartean. Baina, orain, ezkutuko\* gerrilla hura\* ageriko gudu bihurtu da, eta bi fronteak elkartu egin dira Etiopiako «diktadura militarren» kontrako gudua aurrera eramateko, eta Eritrearen askatasuna lortzeko.

Askatasuna eta burugaintasuna edo independentzia da eritrearrek eskatzen dutena, orain arte eskatu duten bezala. Etiopiak, ordea, autonomia bakarrik eskaintzen die. Izan ere, Etiopia kudeatzen\* duen militar taldeak, sozialismoa nahi badu ere, nahiago du Etiopiaren batasuna, nazionalismoa baitu bere ideologiaren oinarrietako bat: Etiopiaren batasuna aurrenik! (Paulo Agirrebaltzategi)

## Txipre: Europaren begietan

Otsailaren\* 13an, Denktash jaunak, turko-txipriotarren gidariak, Estatu berri bat aldarrikatu\* zuen. Txipren turko-txipriotarren eta greko-txipriotarren Estatu Federal berri bat sortzeko oinarriak ezarri nahi izan ditu, gidariak berak esan duenez. Honela Txipre erdibiturik geratu da, Turkiako harmadak\* hartuta zedukàn partea islaren 38 % baitzen. Txipreko lehendakari den Makariosek eta greko-txipriotarren gidaria den Kleridesek ONUra eraman dute arazoa.

Zer egin du USAk? Washingongo Kongresuak kendu egin dio Turkiari laguntza militarra. Turkiak indarrez erantzun nahi izan dio USAri, Txipren hartu zuen partearen independentzia aldarrikatuz. Greziarekin adiskidetzearren kendu dio laguntza militarra Turkiari; eta orain ez daki zein izango den Turkiaren azken erantzuna. Estatu Batuek han dituzten 25 base militarrek botako ote dituzte? Aidean dago oraindik Amerikaren eta Turkiaren azken erantzuna.

Zer egin du Sobiet Batasunak? Isla bi alderditan banatzea kondenatu egin du Errusiak. Eta Makarios zain dagoela dirudi; eta prest legoke, Errusiari laguntza militarra, politikoa eta diplomatikoa eskatzeko. Dena dela, ONUn izango den eztabaidan Sobiet Batasuna bere alde izango du Makariosek.

Zer egin du Europak? Autonomia aldarrikatu zèn egun hartan bertan, Europako Bederatziek ageri bat atera zuten Dublinen, Txipreko bi komunitateen arteko arazoa elkarrizketa bidez konpondu beharrekoa zela, eta horretarako bitartekoarena egiteko prest zeudela adieraziz. Ageri haren arabera,\* Bederatziek garrantzi handia ematen diete Txipreren independentziari eta batasunari.

Bederatzien elkarrekin loturik daude bai Grezia, bai Turkia eta bai Txipre. Horregatik kezkatzeko du benetan Europak, bere barnean sor litekeen horrelako istilurik.\*

Kissingerek eginahalak egin ditu Greziaren eta Turkiaren artean elkarrizketa sortzeko, baina alferrik. Haik\* biak Atlantik Aliantzako lagunkideak direlarik, bai USAk eta bai Mendebal Europak kezka berezia dute, Txipreko arazoa konpontzeko. Horregatik, eta Errusiak saltsan nahasteko gogo handia duelarik, Italiak eta Alemaniak orain beren bitartekotasuna eskaini dute, turko-txipriotarrek eta greko-txipriotarrek Txipren duten istilua argitzeko eta konpontzeko. (Paulo Agirrebaltzategi)

## Frantziako zientzi gizonak nuklear zentralen kontra

Jakina denez, Frantziako Estatuak, 1985. urterako, mila megawatetako 45 nuklear errektore alan\* edo marxan eman beharrak ditu. Eta 2000. urterako, berriz, beste 145 gehiago. Zentral horik\* oro\* amerikarren kontrol-

pean eraikiak izanen dira, zeren\* eta, delako nuklear errektore horien alagailu\* den uranioa, haiek salduko baitiote frantses Estatuari, Mendebal Europako beste Estatuari eginen dieten bezala. Zentral horiek sortu edo sortuko dituzten arriskuak egiazkoak, errealak dira. Ordea, ez da orain arte arrisku horietaz sobera\* berri zabaldu. CFDTea sindikatuak\* direnek, jendea doi\* bat argitu dute, kazeta batzutan gai horretaz ireki berria duten sailari esker. Hala ere, jendearen baitan eragin\* handiena ukan\* duena, Frantziako lauhun zientzi gizonak berrikitan\* argitaratu duten manifestua izan da. Hona hemen ageri horren pasarte batzu:

Guk, aztertzaile, inginadore eta teknikariok, agintariak erabaki arin bat hartu dutela uste dugu, eta, era berean, erabaki horren arriskuak eta berauen ondorioak izugarrikoak izan daitezkeela.

Arriskuak iturri askotarik sor daitezke. Hauk dira printzipalenak: a) Zentralen segurtamenik eza. (USAn, duela zenbait hilabete, nuklear segurtamenaren batzordeak\* hala erabakirik, 21 errektore geldi erazi dituzte, haietarik hirutan zenbait hodi\* zapartatu\* zirelako, eta besteak segurtamenaren araudien\* edo erregelen arabera\* eraikiak izan ez zirelako.) b) Bero kutsadura,\* eguraldia eta ekologia alda lezakeena. c) Ekai\* errektiboen garraioa,\* oso posible baita berauen lapurketa. d) Zentraletarik jaurtikitzen diren hondakin erreaktiboak.

Hondakinen problema batipat\* oso serioa izan daiteke; eta Gobernuak eragelkeriaz\* eta batere kezkarik gabe jokatu duela uste dugu, berehalako abantalei\* bakarrik behatuz\* eta gerokoa alde batera utziz.

Gobernuak egin dituen inkestak,\* argibideak eta azalpenak, puntu garrantzitsuenak ukitu\* gabe egin dira beti; eta batzutan, egiazko problemak baztertuz edo isilduz. Arriskuak sistematikoki gutietsi\* dira, eta ondorioak ezkutatu,\* zentzugabeko konfiantza eman nahiz.

Hala ere, Estatuko teknikari ofizialen ikertzapenek ez dute denek gauza bera adierazten. Batzuk hau diote, eta bestek hori: ezin ustezko eritzi desberdinak erakusten dituzte. Gainera, problema garrantzitsu honi buruz ez dadukagu gaur egun, ez legerik, ez aparteko kontrolik, ez ezer ere. Finantziari okituek\* eta banku handi batzuk dute azken hitza. Diruak bakarrik agintzen duenean, hondamen izugarri bat baino ez da hortik aterako. Bestalde, horrelako politika batek ez du gure askatasun nazionala indartuko, Frantziari uraniorik asko ez dagoelako. Bilaketa guti egiten da osterantzeko\* energi iturriak aztertzeko eta ditugunak zabaltzeko. Arazo honetan Gobernuak ez ditu herriaren benetako interesak kontutan hartu, ez eta gero etorriko den gizartearenak ere; eta guztiz politikoa den aukera bat, zientifikoa balitz bezala aurkeztu du.

Frantziako herri guztiari dei bat egiten diogu, zentral horik onhar ez ditzan, arriskuak eta berauen ondorioak ondo ezagutu arte.

Leuhun zientzi gizonak sinatu\* dute gutun\* hau. Haien artean oso gizon famatuak aurkitzen dira, hala nola, Marcel Froissart, «College, de France» delakoan irakasle eta fisika korpuskular laborategiaren zuzendari. Gainerakoak, fisikariak, biologoak, kimikariak, toxikologoak, matematikariak dira, politik alderdi eta ideologia guztietarikoak.

Giscarden Gobernuari aupada larri bat bota diote, eta haren bitartez «erreformista» deritzen guztiei. Aupada hori ez dator edonorengandik. Frantziako zientzi gizonak hitz egin dute. Ez da guti. (Alberto Etxebeste)

die, deutse  
diete, deutsee  
dio, deutso  
diogu, deutsagu  
diote, deutsoe  
ditzan, daizan  
dizkie, deutsez

dizkiete, deutseez  
geunden, gengoan  
lezake, leike  
zaio, jako  
zaizkio, jakoz  
zeuden, egozan  
zizkieten, eutseezan

## Herriaren erlijioa eta teologiak

Jakin berria dudanez, Andaluziako apezpikuek bilera bat egin dute urtarrilaren erdi aldera, bertoko pastoralgintzari elkarrekin bideren batzu ireki edo bultzatzeko asmoz. Gertakari honek berez eskaintzen digun ereduaz gainera, bereziki aipagarri iruditu zait aztergaien arteko bat: herriaren erlijiositatea, halegia. Azterketaren nola-koaz eta ondorioez deus ez dakidan arren —eta ez jakidalakoxe—, uste dut pentsabiderik eskain diezagukeela euskaldunoi gaiaren hautapenak berak. Esan dezadan alde zurririk, horrenbestez ez dugula ezer berririk deskubritzen (kezka ezaguna baita). Hala ere, korapiloaren nolakoa hautemateko, haren kokamena behin eta berririo gogoratzeak kalterik ez duelakoan aipatzen dut.

Aspaldidanikoa da euskal kultura bat eraikitzearen aldeko eskakizuna eta lehia; bai eta, beste maila batetan, euskal teologia nahiz Euskal Eliza bat lortu nahia ere. Horrek, jakina, bertoko egoera, asmo eta ekinbideekiko atxekimendua —ez derrigorrez menpekotasuna— eskatzen du, eta, hasteko, horik guztiok ezagutzea. Hastapen maila honetan kokatuko genuke guk Andaluziako apezpikuen aztergai hura eta gurean beste horrenbeste egitearen premia, pastoralgintza ororen oinharrietarik bat berau delarik.

Ezaguna da, ordea, «euskal kultura» bikotearen mugatze zailtasuna; berdin, «euskal teologia» edo «Euskal Eliza» kontzeptuekin. Hautapen kontua, azken batean: baina hautapen kondizionatua beti ere. Ad casum: teologiaren barnean sortu diren sistema eta metodo desberdin guztiak «a priori» batez epaitzea, zein guztiak berdin balioztatzea, itsukeria litzateke jadanik. Guztiok eta bakoitza ingurumari eta eskakizun desberdinen arabera jaiok dira, kultura desberdinen, eta desberdinei, erantzun bezala sortuak. Erantzunaren berezko eskakizunen artean, nork eta nori erantzuten dion hauzia tartekotzen zaio giza zientzi mota orori; teologiari ere bai, noski.

Zilegi da, horregatik, aldi nahiz egoera bakoitzak bere premia eta asmoak desberdinki klasifika ditzan, lehentasun mailaketa baten arabera. Kasurako: garai batetan, bere ate-leihoak Europako korranteetara zabaldu behar diren kontzientzia zen euskal kulturgintzaren zirikatzaile biziaren artean, ziborraren inguruan jira-biraka ibiltzeak itomenaren arriskua nabarmentzen baitzuen. Ezin dezakegu esan, urrats hori berorren luze-zabal osoan emana dugunik, eta, ondorioz, ahanztekoa denik. Hala ere, txerto berri eta berritzaileon derrigorrezkoarekin batera, non txertatuari ere so egin beharraz inoiz baino jabetuagoak gaude gaur egun.

Hori, hasteko. Eta beste puntutxo bat: herri mailan zehazten den ihardun batetan, sarri gertatu ohi da «herri» horren erabili nahia, eta manipulaketa bera ere (gure artean aski maiz zabaltzen diren salakuntzak lekuko). Gutien artean interes ezkutuen izenean, gidaritza asmorik zintzoenaz, iheskeriaz etab. egingo da hori; baina beti ere «erabiltze» bat izango da: faxismoaren eta jauntxokeriaren itzala, edo, onenean, dirijismo alfer bat.

Baina XX. mendeon eta deskoloniapen geraiotan ere, ukaezina da gidariaren eragina: zorionez ala zorigaiztoz, bestek esan beza; nolahi ere, pentsa eraztekoa da. Deskoloniapen horren berorren aldi eta zati ezberdinak baitzepadako eredu ez bazaizkigu ere, zerbait eskain diezagukete. Jakina, gu europarrak gara eta izan nahi dugu, halakoren baten eritziaren eta «erabakiaren» kontra. Baina horrek apenas deus erabakitzen du, horretarako biderik erakusten badu ere. «Europaren zein Europatan bizi izan garen» eta bizi garen jakin beharraz aski ohartu-

rik gaude dagoeneko; Europaren batasuna bezain benetako baita haren ugaritasuna eta neurri berdinez mugatzen. Eta, bestalde, «hirugarren —ala «laugarren»?— munduak bere arazoei ematen dien erantzuna —esaterako, «Askapenaren Teologia»— ez da itzulpenik gabe guretzat ere egokia, are gutiago egokiena.

Hautapen kontua izango da, zalantzarik gabe; baina ez bapateko txertaketarik. Gure herriak eta kulturak badi hor zeresanik ugari. Bai eta hori «entzuteko» eta aztertze asmoz dabilenik eta diharduenik ere. Zain gaudukate. (J. A. Aduriz)

## Eliz ezkontzak gero eta gutiago Holandan

Simonis Rotterdameko apezpikuak aitortu duenez, Holandan katoliko erdiak baino gehiagok ez du eliz ezkontzarik egiten.

Gainerako sakramentuetan ere —aitortza, jaunartze, apezgoa— joera bera da nagusi Holandan: sakramentuetarik aldentzea, halegia.\*

Simonis jaunaren eritziz, aldentze horren arrazoina hauxe dateke: maitasunaren egiazko zentzua eskastuz joanik, ezkontza, maitasun lokarri bezala, baliogabezatuta egin dela. Bigarren arrazoin bat ere ba dagoke, hots, ezkontza bikotearen arazo huts bezala ulertzea, Jainkoaren eta gizartearen aurreko erantzunkizunaz konturatu gabe.

Sendabideak bilatzeko orduan, hiru puntu azpimarkatzen ditu Simonis jaunak: ezkontzaren balioa gogortzea, sakramenturako prestaketa sakonago egitea eta ezkontzarako adina\* atzeratzea.

Uste dugunez, zinez\* harrituko ginatke, sendabide horik\* krisia gainditzeko aski\* izateaz. Ezkontzaren krisia, maitasunaren ulertzapen desberdin batetatik bakarrik ez baina gizarte eredu\* zenbaiten itzulipurdikatze ere ba dator. Holakoa iruditzen zaigu Holandakoa. (Unai Navea)

## Espainiako katolikoak eta heriotz zigorra

Espainiako katolikoak beti izan du bere kutsu aparteko bat. Ezin izan dugu irakurri harritzeke.\* «Cambio 16» astekariak urtarrileko\* 165. zenbakian dakarren inkesta\* bat: «Pena de muerte, no».

Inkestatu guztietarik —katoliko izan zein ez izan— 55 %ek eskatu dute heriotz zigorra kentzea.

Baina benetan ulertezina, hori eskatu dutenak erlijioaren arabera\* bereizten direnean agertzen zaigu. Hiru sailtan daduzkagu banatuak: erlijio gabeak, katolikoak, eta beste erlijio brik dutenak. Erlijio gabeen artean 71 % dira kentzearen aldekoak, katolikoaren artean 53 %, eta beste erlijiodunen artean 74 %.

Katoliko hauen artean ba dira oraino beste mota batzuetan praktikatzeko ez dutenak 58 %, gutti praktikatzeko dutenak 56 %, praktikatzeko dutenak 51 %, eta oso katoliko onak 48 %. Gogoan edukitzeko da, sailketa hau katoliko bakoitzaren ustearen arabera eginga dela.

Nola izan daiteke hau? Heriotz zigorraren kontra joatea, katoliko izatearen aurka joatea balitz bezala! Heriotz zigorra ez ahal\* da «ley del talión» deritzanaren azken ondorioa?

Inkestan ikus daitekeenez, katolikoaren artean, zenbat eta nork bere burua katoliko hobea uste izan, hainbat gehiago onhartzeko da heriotz zigorra. Espainiako katoliko hauen artean ez ote dago gizonaganako maitasunerako lekurik? «Oso onak» direla uste dutenok, agerian utzi digute, egiazko katoliko on izateko oso urrun daudela. (Antton Inurritegi)

## HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABANTAIL, **venta**.  
 ADIN, **edade**.  
 AGERKARI, **aldizkari, publicación**.  
 AGIAN, **oxala, quiera Dios**.  
 AGINTZARI, **promesa**.  
 AHAIDETASUNAZ DEN BEZAINBATEAN, **en lo que respecta al parentesco**.  
 AHAL, **galde egiteko partikula**.  
 AHUL, **makal**.  
 AHULDU, **makaldu**.  
 AINAKO, **adinako, besteko, bezainbesteko**.  
 AIPATU, **aipaturikako, aipaturikako, aipaturiko**.  
 AITZIN SOLAS, **hitzaurre, prefacio, prólogo**.  
 ALA, **alga, idea de funcionamiento (alimentación, manducación, ruminación, dolor, remordimiento, roedura, lata, machaqueo, tormento, murmuración, marcha, movimiento)**. Hitz aberats hau eta beronen deribatutak gehiago erabili behar genituzke euskara batuan.  
 ALAGAILU, **alimentador, funcionador**.  
 ALDARRIKA, **garrasika**.  
 ALDARRIKATU, **proclamado**.  
 ALDARRIKATZE, **proclamar**.  
 ALDIZ, **berriz, orde, ostera**.  
 ALTABADA, **hala ere**.  
 ALTJOR, **tesoro**.  
 APAILATZE, **prestatze, preparar**.  
 ARABERA, **araueru, según, conforme**.  
 ARAKATU, **aztertu, ikertu**.  
 ARAUDI, **reglamento, conjunto de normas**.  
 ARE, **oraindik, aún, encore**.  
 AREAÑO, **oraindik gehiago**.  
 ARNASESTUKA, **(arnasa, aliento + hes-tuka), respirando con dificultad**.  
 ARRAKASTA, **éxito, succès**.  
 ARRANTZA, **pesca, (AHARRANTZA, rebuzno, braiment)**.  
 ARRUNT, **común, corriente, ordinario**.  
 ARTA, **ardura**.  
 ASKAPEN, **liberación**.  
 ASKI, **nahiko**.  
 ASMU, **propósito malicioso**. (Zentzu honetan erabiltzen du Kintanak.)  
 ASTEARTE, **martitzen**.  
 ATZOTITZ, **proverbio**.  
 AUSARTKERIA, **temeridad**.  
 AZALEZTATZE, **envolver, envelopper**.  
 AZKARKI, **fuertemente**.  
 AZTORATU, **azorado, effaré**.  
 BAITAKO, **barneko, -gango**.  
 BAITEZPADAKO, **beharbeharrezko**.  
 BALERITZO, **baleritza, balerizkio, eritziko ballo (baleutsu)**.  
 BALIATZAILA, **utilizador**.  
 BARATZAIN, **(baratze + zain), jardineru**.  
 BARIK, **gabe**.  
 BARRASKILO, **marraskilo, caracol, escargot**.  
 BARREIATU, **esparcido**.  
 BATEZ BESTE, **ana beste, por término medio**.  
 BATIPAT, **batez ere, guztiz ere, bereziki**.  
 BATZORDE, **comisión, comité**.  
 BATZU, **unos. (Batzuk aktibo, batzu pasibo)**.  
 BATZUREN, **de unos. (BATZUEN, de los unos)**.  
 BATZUTAN, **en unos. (BATZUETAN en los unos)**.  
 BEDEREN, **behinik behin, behintzat, gutlenez**.  
 BEHA, **begira**.  
 BEHATU, **begiratu**.  
 BEHATZE, **begiratzeko**.  
 BEHINBEHINEKO, **provisional**.  
 BEIRA, **vidrio. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 BEIRAKI, **objeto de vidrio. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 BELAUNALDI, **generación**.  
 BEREKIL, **automóvil**.  
 BERRIKITAN, **berriki, recientemente**.  
 BESTE, **inor**.  
 BIDE, **beharbada, nonbait**.  
 BIDEZKO, **justo, legitimo**.  
 BIKAIN, **excelente**.  
 BILAKATU, **bihurtu**.  
 BILAKATZE, **bihurtze**.  
 BILDUMA, **colección**.

BIRTZIKLATU, **reciclado, recyclé**.  
 BOLADA, **unada, temporada**.  
 BULDA, **bula, bulle**.  
 BULEGO, **oficina, bureau**.  
 BULEGARITZA, **bulegalgo, burocracia**.  
 BURU EGITE, **hacer frente**.  
 BURUTU, **realizado**.  
 DAGOENENKO, **honez gero, engoitik, para ahora**.  
 DAGOKE, **dago nonbait**.  
 DAKUSAGU, **ikusten dugu**.  
 DATEKE, **daga nonbait**.  
 DATZA, **yace, git. (Etzan aditzaren forma)**.  
 DAUDEKE, **daude (dagoz) nonbait**.  
 DEITU, **deitutako, deiturikako, deituriko**.  
 DENAZ BEZAINBATEAN, **en lo que respecta a. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 DEUS, **ezer**.  
 DIREA, **ahal dira?**  
 DOI, **apur**.  
 DONAPALEU, **Nafarroa Garaiko Saint-Palais**.  
 DONTSU, **zorioneko**.  
 DUJA, **(du + a), ahal du?**  
 DUKE, **du nonbait**.

EDOZENBAT, **zenbatnahi**.  
 EGIN, **egindako, egnikako, egniko**.  
 EGITEKE, **egin gabe**.  
 EGITURA, **estructura**.  
 EGOKITU, **acomodado**.  
 EGOTZI, **bota, jaurtiki**.  
 EGOZTE, **echar, imputar**.  
 EGUN, **gaur**.  
 EGUNSENTI, **aurora**.  
 EGURATS, **atmósfera**.  
 EKA, **gai, materia**.  
 EKAIN, **(eki, sol + gain), junio**.  
 EKIALDE, **(eki, sol + alde), oriente, Este**.  
 EKIN, **insistencia**.  
 ELKARGO, **elkarte, consorcio**.  
 ENARA, **golondrina, hirondelle**.  
 ENDELEGU, **intelecto, entendimiento**.  
 ERABIN, **guztiz, osoki**.  
 ERAGIN, **eragiten, influencia, acción**.  
 ERAKARTASUN, **atracción**.  
 ERAKUNDE, **organismo, entidad, institución**.  
 ERASO, **atacar**.  
 ERBINUDE, **comadreja, belette**.  
 EREDO, **modelo**.  
 EREMU, **terreno**.  
 ERGELKERIA, **ligereza, frivolidad**.  
 ERITASUN, **gaixotasun**.  
 ERORI, **jausi**.  
 ERRAI, **errain, entraña**.  
 ERRAUTS, **ceniza, cendre. (HAUTS, polvo, poussière)**.  
 ERRESUMA, **reino, royaume, kingdom. (ERREINU, reinado, règne, reign)**.  
 ERRU, **hoben, culpa**.  
 ESKARI, **petición**.  
 ESKUALDE, **comarca, región**.  
 ESKUTAN, **en manos. (ESKUETAN, en las manos)**.  
 ETORKI, **origen. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 EUSTE, **sostener, apoyar**.  
 EUTS, **sostener, apoyar**.  
 EUSI, **sostenido, apoyado**.  
 EZELAKO, **(ezer + lako), inolako**.  
 EZEZIK, **no solamente**.  
 EZKUTATU, **ocultado**.  
 EZKUTU, **lugar oculto**.  
 FUNTS, **fondo, esencia**.

GAINDI, **zehar**.  
 GAINDITU, **superado**.  
 GAITZETSI, **reprobado, condenado**.  
 GANORAGABEKERIA, **ganoregabekeria, kanoregabekeria, insustancialidad**.  
 GARDEN, **diáfano, claro, transparente**.  
 GARRAIO, **transporte**.  
 GEHIENGO, **mayoría**.  
 GERTAKARI, **gertatua den zerbait. (GERTAKIZUN, gertatzeko den zerbait)**.  
 GERTATZE, **resultar**.  
 GERUZA, **capa ligera, couche légère**.  
 GEUNDEN, **genozan**.  
 GISA (1), **era, modu**.  
 GISA (2), **bezala, legez**.  
 GOGO IZAN, **nahi izan, gura izan**.  
 GOGOETATU, **preocupado, vuelto pensativo, caviloso**.

GOITI, **gora**.  
 GOITIBEHEITI, **gorabehera**.  
 GORABEHERA, **a pesar de, malgré**.  
 GOTOR, **sólido, vigoroso, populoso**.  
 GUTIETSI, **menospreciado, subestimado**.  
 GUTUN, **misiva, carta**.

HAIK, **hareek. (Haiek aktibo, haik pasibo)**.  
 HALABER, **asi mismo, también**.  
 HALEGIA, **(hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGEIA ficción)**.  
 HARMADA, **ejército**.  
 HARRITZEKE, **harritu gabe**.  
 HASERA, **haste, hastapen, comienzo**.  
 HAU, **honeek. (Hauek aktibo, hau pasibo)**.  
 HAUTAKIZUN, **alternativa**.  
 HAUTEMAN, **percibir, notar, captar**.  
 HAUTESKUNDE, **elección por votación**.  
 HAZTAREN, **haztarna, vestigio, huella**.  
 HEDATU, **zabaldu**.  
 HEGAN, **hegaz, hegaldaka, volando**.  
 HEGAZ EGITE, **hegaldatze, volar**.  
 HEGI, **ertz**.  
 HEIN, **nivel, grado**.  
 HELDU, **maduro, mür**.  
 HERTSI, **hestu, estrecho. (HETSI, cerrado, fermé)**.  
 HETSI, **cerrado, fermé**.  
 HILORTZE, **aborto**.  
 HITXI, **hetsi, cerrado, fermé. («Zabal» aidizkarikoez hetsi hautatu dute euskara baturako)**.  
 HODI, **tubo, tuyau**.  
 HONETARA, **honela**.  
 HORIK, **hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo)**.  
 HORRETAZ, **por consiguiente**.  
 HOSTOALDE, **horrialde**.  
 HOTS, **a saber, es decir, esto es**.  
 HURA, **ha**.  
 HUTSARTE, **intervalo vacío**.

IA, **kasik**.  
 IDAZKARI, **sekretari**.  
 IHAURRI, **extendido sobre el suelo. (Ikus Pierre Lhanderen hiztegia)**.  
 INKESTA, **encuesta**.  
 INOZO, **ingenuo**.  
 IRUDIKO, **ustez**.  
 ISOLATU, **aislado**.  
 ISTILU, **conflicto**.  
 IZEKITZE, **encender, allumer**.  
 IZKIRIBU, **eskribu, escrito**.  
 JADANIK, **ya**.  
 JAGON, **zaindu**.  
 JARRERA, **postura, actitud**.  
 JASAN, **soportado**.  
 JASATE, **soportar**.  
 JASO, **bildu**.  
 JASOTZE, **altxatze**.  
 JAULKITZE, **salir de la boca, caer de la boca**.  
 JAUNSKILA, **jauntxo**.  
 JAUIZ, **salto**.  
 JUJE, **juez**.

KARIA, **motivo**.  
 KARRIKA, **kale**.  
 KOKATZE, **situarse**.  
 KONDATZE, **contar, narrar. (KONTATZE, contar, enumerar.) Hala erabiltzen ditu Kintanak**.  
 KONDU, **ipuin, cuento. (KONTU, cuenta.) Hala erabiltzen ditu Kintanak**.  
 KONTRAST, **contrario. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 KOPURU, **cantidad, suma. (Kopuru eta mukuru latinezko cumulus berbatik datoz.)**  
 KUDEATZE, **dirigir, regir**.  
 KUTSADURA, **contaminación. (SATSUDURA, polución.)**  
 KUTSATZE, **contaminar**.  
 LATONTZI, **(lata + ontzi), envase de lata**.  
 LEHENGOZ, **lehenengoz**.  
 LEKUKO, **testigu**.  
 LEUDEKE, **legokez**.  
 LOT, **aplicarse, entregarse. (LOTU, aplicado, entregado.)**

MAIAZKARI, **en mayo**.  
 MAILEGU, **préstamo**.

MAIZ, **sarri**.  
 MANAGAILU, **organismo de mando**.  
 MEAGINTZA, **mineria**.  
 MENDEBALDE, **(mendebal + alde), occidente, Oeste**.  
 MERKATALGO, **comercio**.  
 MILIAR, **mila milioi**.  
 MINBIZI, **cáncer**.  
 MOJA, **serora, sor, religiosa**.  
 MULTA, **amanda**.  
 MUSKER, **lagarto, lézard**.  
 NABARERAZTE, **hacer advertir, hacer notar**.

NABARI (1), **evidente, notorio, patente**.  
 NABARI (2), **advertir, notar. (NABARI-TU, advertido, notado)**.  
 NAGOSTU, **nagusitu**.  
 NORBAITZUK, **algunos. (Norbaitzuk aktibo, norbaitzu pasibo)**.

OHOSTU, **ebatsi, lapurtu**.  
 OIHAN, **baso**.  
 OIHARTZUN, **eco**.  
 OKITU, **lleno, repleto**.  
 ONDU, **compuesto**.  
 ONURAGARRI, **provechoso**.  
 ORAINOKOAN, **orainartekoan. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 ORDOKITU, **zelaitu, allanado**.  
 ORO, **guzti**.  
 ORO HAR, **en conjunto**.  
 OROKOR, **general**.  
 OROKORTASUN, **generalidad**.  
 OSTEGUN, **éguen**.  
 OSTERA, **ordea, berriz, aldiz**.  
 OSTERANTZEKO, **bestelako, distinto, diverso**.  
 OTSAIL, **febrero**.

PAIRATZE, **aguantar, padecer**.  
 PIKOTARA, **a la picota, al traste. (Picota, antiguo instrumento de suplicio)**.  
 PILTZARKETARI, **trapero, chiffonnier**.  
 PREZEKTI, **preseski, precisamente**.  
 PUNPATU, **botado**.

SALHATU, **denunciado. (SALHO, denuncia. SALO, glotón)**.  
 SARDINIA, **Cerdeña**.  
 SATSUDURA, **polución. (KUTSADURA, contaminación)**.  
 SINADURA, **firma**.  
 SINATU, **firmado**.  
 SINDIKATU, **sindicado**.  
 SOBERA, **gehiegia, lar, larregi**.  
 SOIL, **simple, mero**.  
 SUNTSITU, **hondatu**.

TANKERA, **estilo**.  
 TAXU, **traza, porte, talla**.  
 TROXA, **pañal, lange**.  
 TXANGO, **excursión, expedición. (Txango egite = zango egite, footing?)**  
 TXATARRA, **hierro viejo, ferraille**.  
 TXOSTEN, **trabajo literario corto**.

UDAL, **municipio**.  
 UGAZABA, **amo, dueño, maitre**.  
 UKAN, **izan. (UKan aktibo, izan pasibo)**.  
 UKITU, **tocado. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 URRATS, **pauso. (PAUSU, descanso, reposo)**.  
 URTARRIL, **enero, janvier**.  
 URTXINTXA, **ardilla, écureuil**.  
 USNATZE, **olfatear. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.

XEDE, **propósito, objetivo. (Ikus «Axularren Hiztegia»)**.  
 XUHUURKI, **económicamente**.  
 XURITU, **zuritu, arreglado, resuelto**.

ZABOR, **basura**.  
 ZABORRERIA, **desperdicios, restos, déchets**.  
 ZAPARTATU, **reventado, crevé**.  
 ZARAMA, **basura**.  
 ZEREN (ETA), **ze, pues**.  
 ZINEZ, **benetan**.  
 ZIRRARA, **emoción**.  
 ZOKOA, **Lapurdikoa Socoa**.  
 ZUNTZ, **fibra**.  
 ZUZENBIDE, **justicia. (HELBIDE, dirección, adresse)**.

ren eta batasunaren arteko eztabaida, ekonomiazko elkartasunaren eta politikazko batasunaren arteko eztabaida, hategia.\* Ekonomi mailako Europatik politik mailako Europara, maila aldatze bat dago, eta ez urrats bat ematea bakarrik, orduan eta geroztik ere uste izan den bezala. Bigarren mailara igan ez delarik, Europaren elkartasuna (ekonomiazkoa ere bai) oso makaldurik gertatzen\* da gaur, Europa batuaren ezina nabarmenduko balu bezala. Azken hilabeteetako energi astinaldiak eta ondorioek nabarmenago jarri dute oraindik ere Europaren politik batasunaren makala, Europa ekonomi aldetik ere besteren menpean delarik.

Europaren batasunak gorabehera handiak izan ditu azken urteotan: urrats bat aurrera eman ondoren, beste bat eta erdi atzera eman. Hamar izatera heldu zirenak, berehala bederatzira jaitzi ziren. Oraindik ere Ingalaterrak zalantzan daduka, eta erreferendum baten zain, Europarekiko bere lotura. Bestalde, Europaratenago zuen itsas azpiko tunelaren asmoak ere pikotara\* bota ditu Ingalaterrak, Concorde hegazkinak Frantziarekin batera egiteko akordioa pikotara joan zen bezalaxe. Ekonomiazko interesak burrukan jartzen direnean, suntsiturik\* gelditzen da ekonomian oinharritu nahi den Europaren batasuna. Horregatik, energiaren eta inguruko ekonomia osoaren krisiak, zalantzan eta larritasunean jarri du Europaren politikazko, gizartezko eta instituziozko batasun bide osoa. Hala ere, lehen eta oraindik, elkartasun eta batasun hitzak jaulkitzen\* dira eta bilerak antolatzen.

Makaldua agertu da, halaber, azken urteotan eta azken Sinodoan, Europako Elizaren indarra eta eragina.\* Orain dela hamar bat urte eta Kontzilioaren ondoren abiatu zen Europako Apezpiku Konferentzien Kontseilua. Latin Amerikako Apezpiku Konferentzia lehenagokoa da; hemen, ordea, ez zen Europako Konferentziarik sortu, Konferentzien Kontseilua baizik, Konferentzia bakoitzaren beregaintasuna ez urratzearen edo.

## Estatuak, Elizak, Herriak

Europarrek, Europako herriak, Europako Herriek ba ote dakite, gero, ezer, Estatuak antolatu duten ekonomi elkarteaz edo Elizek eratu duten elkarteaz? Herriak, Herriek zer parte hartu dute elkarbide honetan? EEEk Europako Ekonomi Elkartea adierazten du; berdin adieraz dezake Europako Estatuaren Elkartea eta Europako Elizen Elkartea ere. Baina ezin dezake Europako (H)errien Elkartea adieraz... Berriz ere H dontsu\* horrek hondatu! Elizen eta Estatuaren batasun bidea konparatzen badugu, elkarrekiko erreferentzia asko aurkitzen dugu.

### 1. Estatuaren batasuna ala Herriaren batasuna?

EEE, haseratik eta oraingo, Gobernariak eraturiko elkarteak da, eta Estatuaren mailan, hain zuzen ere. Politik mailako batasuna onharitzeak oraingo Estatuaren beregaintasun osoa ukatzea esan nahiko luke, horien gainetik Europa batu bat sortzeko. Baina Europako Estatuaren («nazioen») elkartasunetik Europako Herriaren batasunera maila handia dago. Izan ere, orduan Europaren batasunaren eragileak askozaz gehiago lirateke: Europan bizi diren Herri txiki eta handi guztiak, hain zuzen ere, eta ez oraingo Estatuak bakarrik.

Kapitalaren, merkatuaren eta turismoaren ekonomiazko nazioartekotasuna edo Estatuartekotasuna gauza bat da; besterik da, ordea, gizonen eta langileen «gizartekotasuna» eta Herrien «herriartekotasuna», hauk\* egiterik ez baitago diru eta ekonomi maila hutsean: kultur eta politik mailan lortzekoak dira batez ere. Zenbaitzuk «Europako Estatu Batuak» hartzen dute Europaren politikazko batasun tankera\* eta formula bezala. Zeintzu Estatu izango diren jakin behar, ordea. Oraingo Estatuaren batasuna izango bada, ekonomiazko elkartasunetik urrats txiki bat ematea besterik ez litzateke, eta ez ginateke 1955.etik urruti geratuko. Europako Herri guztien Federazio bat izango bada, berriz, orduan beste maila batetako batasunera iraganen gara.

Europako Herriak zatituta daude, eta zatituta iraungo lukete, Estatuak elkartuko balira ere. Europa batuak ez, eta bai Europa banatuak iraungo luke; eta «batutako» Estatuak Europako Herriak «erdibanatuko» litzukete.

Kapitala da Estatuaren bitartekoa, orain arte egin nahi izan den Estatuaren Europarako. Ekonomiaren politika egiten dute Gobernariak, Europa batua lortzeko. Langileek, ordea, zer joko eta zer esku dute batasun bide horretan? Europako emigrazioaren fenomenoak historian inoiz gertatu ez den ainakoa\* da. Eta halabeharrezko emigrazioa ez da Herriak elkartzeko eta batzeko biderik egokiena. Aurten emigranteei ekonomi krisiak ekarri dien zoritxarrak, beste ezerk baino nabarmenago jartzen du zein makala, zein azalekoa, zein urrutikoa den Europaren batasuna. Izan ere, haseran\* ekonomiaren eta Estatuaren batasuna bezala abiatu zenak, hogeitau geroago ekonomiaren eta Estatuaren batasunaren ahula eta merkea nabarmen-tzen du.

### 2. Elizaren batasuna ala Herriaren batasuna?

Kontzilioaren ondoren sortu diren Apezpikuen Konferentziak, Hierarkiaren mailakoak dira, Apezpikuen mailakoak hain zuzen ere. Era berean, Europako Konferentzien Kontseilua Eliz Hierarkiaren goi mailan gelditzen da, Jainkoaren Herria den Elizaren batasuna urruti gelditzen delarik.

Baina ez da hori bakarrik, Europako Apezpikuen Kontseilua herriagandik urrutiratzen duena. Europako Apezpiku Konferentziak Europako Estatuaren mailan eratuta daude, eta ez Europako Herrien mailan. Berriz ere, Eliz Hierarkiaren batasuna egin nahi den neurrian, Jainkoaren Herriaren zatikatzea nabarmen-tzen da eta sakontzen. Horregatik Hierarki mailako batasuna ere ustela gertatzen da. Apezpikuen eta Konferentzien elkartasuna lortuz ere, ez dugu artean Europako Elizen (Herriei dagozkien Elizen) batasuna eta elkartasuna lortu. Apezpikuak ez dira sarritan apezpiku beren Herrietan, beren Estatuaren badira ere. Roger Etchegaray jauna da, hain zuzen ere, Europako Apezpikuen Kontseiluaren burua: euskalduna beraz, baina Marseillan artzapezpiku; Baionako bi apezpikuak, ordea, arrotzak dira, frantsesak, hategia.\* Iruineko Méndez jauna eta Gasteizko Peralta ere ez ditugu euskaldunak. Egoera honek ez du Europako Herri Elizen batasuna laguntzen.

Elizaren aldetik ere, Europako Apezpiku Konferentzien Kontseiluak Europako Herrien zatiketa mantentzen du, Estatuaren batasunari eutsi\* nahi diolarik. Honela, Europako kristau herriak banatuta, zatikatuta irauten du. Eta «batutako» Apezpiku Konferentziek kristau herriak «erdibanatzen» dituzte. Azkenik, Estatuak eta Elizek Europako Herri zatikatuen eta banatuen fruitua bien artean erdibanatzen dute.

Estatuak, kapitala bitarteko dutela, ekonomiaren politika egiten badute, Elizek, Estatuak bitarteko dituztela, politikaren ekonomia egiten dute. Eta kristau herria hori doa, Apezpikuen Konferentzien eta Konferentzien Kontseiluaren berririk ez duelarik, hori guztiori oso urrutiko gertatzen baitzaio.

### 3. Batzaile ala banatzaile?

Batua ala banatua dago 1975.eko Europa? Batu ala banatu egiten dute Estatuak eta Elizek gaurko Europa? Estatuak nahiz Elizek ba dakite botere eta hierarki mailatan batasun bideak eratzen eta urratzen. Baina botere maila horretatik herria erdibanatzen dute.

Kultur mailan eta fede mailan, langileen mailan eta kristauen mailan: Herriaren eta Herrien mailan batasuna eta elkartasuna bilatzen ez den bitartean, botere jokoak egiten ari dira Estatuak eta Elizak, eta ez herri lanak.

Europako Estatuaren eta Elizen Elkartea ez da Europako Herrien Elkartea (EEE ≠ EHE); ez eta Europako Ekonomi Elkartea ez da Europako Langileen Elkartea (EEE ≠ ELE).

H mutua da gu gehienontzat eta hizkuntza askotan, lagileak kapitalaren aurrean eta kristau herria Hierarkiaren aurrean mutua dauden bezalaxe.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

daude, dagoz  
die, deutse  
dio, deutso  
zaigu, jaku